

# Nerabeen sexualitatea Euskal Autonomi Erkidegoan

**Nerabeen sexu-portaera eta sexu-hezkuntzaren egoera  
Euskadiko derrigorrezko bigarren hezkuntzan.**



**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

OSASUN ETA KONTSUMO  
SAILA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATEA ETA  
IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE SANIDAD  
Y CONSUMO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



**Autorea: Javier Gómez Zapiain (Nortasun, Balioespena eta Psikologia  
Tratamendu Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea)**

**Kolaboratzaileak: Maria José Ortiz eta Amaia Eceiza.**

## Aurkibidea

1.- Sarrera	5
2.- Sexu-portaera euskal nerabeen artean	6
2.1.- Laginaren deskripzioa	6
2.2.- Nerabeen sexu-portaeraren analisi deskriptiboa	8
2.2.1.- Sexu-portaeraren historia	8
2.2.2.- Sexu-portaera, gaur egun	15
2.2.3.- Sexu-osasuna eta sexu-jarduera	23
2.2.4.- Historia afektiboa	31
2.2.5.- Nerabegaroko sexu-portaeraren eta osasunaren inguruan ateratako ondorioak	34
2.3.- Esperientzia erotikoa eragina duten bitartekari afektiboak, sexu-portaera osasungarrien eta arriskutsuen arabera	37
2.3.1.- Helburuak eta lan-hipotesiak	37
2.3.2.- Metodologia	37
2.3.3.- Emaitzak	38
3.- Sexu-hezkuntzaren egoera euskal hezkuntza-sisteman	50
3.1.- Metodologia	50
3.2.- Laginaren deskripzioa	50
3.2.1.- Ikastetxe mota	50
3.2.2.- Konfesionaltasuna	51
3.2.3.- Lurralde historikoa	51
3.3.- Emaitzak.	52
3.3.1.- Inkestari erantzun dioten profesionalak	52
3.3.2.- Ikastetxeetan sexu-hezkuntza irakasteko modua	53
3.3.3.- Ikastetxeek kanpoko profesionalek erabiltzen dituzten ekintza-motak	54
3.3.4.- Zein mailatan irakasten da?	54
3.3.5.- Zenbat ordu ematen dira?	55
3.3.6.- Zer gai lantzen dira?	56
3.3.7.- Nola finantzatzen da jarduera hori?	57
3.3.8.- Zeintzuk dira sexu-hezkuntzan dauden zailtasun handienak?	58
3.3.9.- Irakasleen prestakuntza	59
3.3.10.- Uhin Bare programari buruz	60
3.3.11.- Hiesaren prebentzioa eskolan	61
4.- Ondorioak eta gomendioak	65
5.- Erreferentziak	67
6.- Ilustrazioen zerrenda	69

## 1.- Sarrera

Nerabearoa haurtzaroaren eta heldutasunaren arteko etapa bat da, aldaketa garrantzitsuz betea. Sexualitatearen ikuspegitik, bereziki esanguratsuak diren hiru aipatuko ditugu: sexu- eta genero-identitatea birdefinitzea, heldutasuneko sexu-desira agertzea, eta lotura afektiboak berrantolatzea. Pubertarotik aurrera gertatzen diren aldaketa biologikoek gorputzaren morfologia aldatu eta sistema neuroendokrinoa berregituratzen dute. Horien eta gainerako garapen-aldaketen eraginez, genero-identitatea berriro definitzen da, eta pubertaroko erotismoa agertzen da (Moner eta Ehrhardt, 1982). Sexu-desira haren adierazlea da, bai eta nerabeak bere identitatean txertatu beharko duen esperientzia emozional subjektiboa ere (Gómez Zapiain, 2009; Levine, 1988). Sexu-desirak, emozioa den aldetik, ekiteko joera sortuko du (Frijda, 1994), eta adin horretan tipikoak diren sexu-portaera autoerotiko edo partekatuetan islatuko da. Ikusten dugunez, sexu-portaera desira erotikoren antolaketaren eta itxuraketaren azken adierazpena da, hura eragiten dute elementuak kontuan hartu gabe ulertu ezin daitekeena.

Esperientzia erotikoei heltzeko unea iritsita, atxikimendu-estiloak esperientzia horiek baldintzatzen ditu. Jakina den moduan, estilo horrek pertsona arteko harremanak erregulatzen ditu, eta intimitatearen esperientzian esku hartzen du (Bartholomew, 1997; López, 1999; Ortiz, Gómez-Zapiain eta Apodaka, 2002). Hortaz, jarreran bakarrik oinarritu ordez, bitartekari sozioafektiboen esku-hartzearen bidez ulertu behar dira arriskuak.

Ilido horretan, txosten honek helburu duen ikerketa ongi bereizitako bi zatitan banatzen da: 1) sexu-jokabideen, babes-portaeren eta arriskuaren efektuen adierazleen azterketa eta 2) bitartekari afektiboen azterketa, besteak beste, barneko ereduak, atxikimendu-estiloak, ama, aita eta kidekoekiko atxikimendua, emozioen erregulazioa eta arriskuarekiko prestasuna. Horregatik, ikerketaren helburuak direla-eta, ez dugu sexu jokabidearen xehetasunetan sakondu, bitartekari afektiboen ikerketari nahikoa leku eskaini ahal izateko. Arrazoia, neurketa-tresnak hartzen dituen galdetegiaren luzera mugatuta izatea; izan ere, kontuan hartu behar dugu luzeegia den galdetegi batek datuen fidagarritasuna kaltetu egiten duela, parte hartzen duten subjektuen artean nekea nagusitzen baita.

Nerabeen sexu-portaera ikertzeko, norberaren garapenaren barruan txertatu eta aipatutako faktoreek horretan eragina duten une biografikoaren adierazpen gisa hartu beharra dago. Orain arte esandakoa aintzat hartuta, gure testuinguru soziokulturalean nerabeek duten sexu- jokabidea zehaztuko dugu, arrisku-portaerak eta beren efektuak baloratzeko asmoz.

Ikerketa honetako ekarpenek balio behar dute sexu-hezkuntza ikasleriaren garapen-unearen errealitatera egokitzeko, esperientzia sexual eta afektiboan hasteari dagokionez.

## 2.- Sexu-portaera euskal nerabeen artean

Ikerketa hau EAEko bigarren hezkuntzako ikasleei eta haien erreferentziazko hezkuntza-erkidegoari zuzendutako heziketa afektibo-sexualaen inguruko programa egiteari buruzko kontratuaren barruan –37/2010-SC espediente zenbakia duena– eraman da aurrera, Eusko Jaurlaritzarekin eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean.

Datuak 2011ko martxotik maiatzera bitartean bildu ziren, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan. Ikerketa-taldeak laginketa-lana diseinatu ondoren eraman zen aurrera, Bilbon egoitza soziala duen «CPS Iritzi eta Merkatu Ikerketak» enpresaren bidez eraman zen aurrera.

Datuok inkestazaile profesionalek jaso zituzten, eta SSPS programaren bidez (17. bertsioa) prozesatu eta analizatu ziren.

Ikerketak bi zati ditu: 1) EAEko nerabeen portaera sexual eta afektiboaren ikerketa deskriptiboa. 2) Sexu-portaeraren esparruko babes- eta arrisku-portaerekin lotutako aldagai sozioafektiboaren azalpenezko ikerketa, hala nola barneko ereduak, atxikimendu-estiloak, aita, ama eta kidekoekiko lotura afektiboa, emozioen erregulazioa eta arriskuarekiko prestasuna.

### 2.1.- Laginaren deskripzioa

Lagina 1.911 subjektuk osatu zuten; horietatik % 54,8 gizonezkoak izan ziren, eta % 45,2 emakumezkoak (1. taula).

1. taula: sexua		
	Maiztasuna	Ehunekoak
Gizonezkoak	1.047	54,8
Emakumezkoak	864	45,2
Guztira	1.911	100

Laginaren batez besteko adina 16 urte dira. % 50ek 15 eta 16 urte bitartean dituzte, % 34k 17 eta 18 urte bitartean, eta % 11, berriz, 18 urtetik gorakoak dira. 2. taulan ikus daitekeen bezalaxe, DBHko azken maila (15-16) zein Batxilergoa (17-18 urte) modu egokian irudikatzen ditu laginak.

2. taula: adina		
Urteak	Maiztasuna	Ehunekoa
15	415	21,8
16	646	33,8
17	435	22,8
18	204	10,7
19	87	4,6
20	51	2,7
21	48	2,5
22	23	1,2
<b>Guztira</b>	1.911	100

Eskola-mailak honela daude irudikatuta: % 42 DBHko ikasleak dira, % 45,1 Batxilergoak, % 6,1, erdi-mailako Heziketa Zikloetakoak, eta % 6,8 goi-mailako Heziketa Zikloetakoak. Garrantzitsua da aipatzea DBHko taldea 4. mailako ikasleek osatzen dutela. Horren arrazoia da ikerketaren helburuetan aurrez definitu genuela 15 urtetik gorako nerabeek bakarrik parte hartzea, aztertzen ziren gaiek adin txikiagokoen garapen-maila gainditzen zutela iritzi baikenion.

3. taula: eskola-maila		
	Maiztasuna	Ehunekoa
DBH	803	42
Batxilergoa	861	45,1
Erdi-mailako heziketa-zikloa	117	6,1
Goi-mailako heziketa-zikloa	130	6,8
<b>Guztira</b>	1.911	100

Lurralde historikoen arabera irudikapena nabarmen hurbiltzen zaio Eustateko hezkuntza-mailen benetako populazioaren banaketa-ehunekoari, eta hala, ikertutako laginean % 13,86 Arabakoak dira, % 47,51 Bizkaikoak eta % 38,61 Gipuzkoakoak (4. taula).

4. taula: jatorriko lurralde historikoa								
	Gizonezkoak		Emakumezkoak		Guztira		Populazioa, oro har (Eustat)	
	N	%	N	%	N	%	N	%
<b>Araba</b>	143	13,60	122	14,18	265	13,86	19.482	15
<b>Bizkaia</b>	518	49,28	390	45,34	908	47,51	66.042	50
<b>Gipuzkoa</b>	390	37,10	348	40,46	738	38,61	44.342	34
<b>Guztira</b>	1.051	100	860	100	1911		129.866	100

Gehienak gurasoekin bizi dira (% 97,12), eta % 2,88 beste senide batzuekin, bikotekidearekin edo beste lagun batzuekin —pisua partekatuta— (5. taula).

5. taula:- elkarbizitza		
	Maiztasuna	Ehunekoak
Gurasoak	1.856	97,12
Beste senideak	39	2,04
Bikotekidea	11	0,57
Pisu batean, lagunekin	5	0,26
Guztira	1.911	100

## 2.2.- Nerabeen sexu-portaeraren analisi deskriptiboa

Jarraian euskal nerabeen sexu-portaeraren ezaugarri deskriptiboak aztertuko ditugu. Lehenik eta behin, sexu-esperientziaren maila ikuspegi historikotik aztertu zen; hau da, subjektuen sexu-portaeraren historia ikertu zen. Bigarrenez, gaur egungo sexu-portaera aztertu zen; alegia, ikerketa egin zen unekoa.

Ondoren, sexualki aktiboak diren pertsonen ezaugarriak aztertu ziren, eta arriskuarekin lotutako portaeretan jarri zen arreta.

### 2.2.1.- Sexu-portaeraren historia

#### *2.2.1.1.- Desiraren orientazioa*

6. taulak homosexual, heterosexual, bisexual eta definitu gabeko pertsonen proportzioa adierazten du. % 93,9k hartzen dute bere burua heterosexualzat, eta % 2,8k homosexualzat. Homosexualak, bisexualak eta definitu gabekoen batuketa eginez gero, % 6 lortzen dugu, gutxi gorabehera. Lehenengo hurbilketan, ehunekoak espero baino txikiagoa dirudi. Ziur aski, ikerketan parte hartu zuten pertsonen garapen-uneari zor zaio hori. Desira homosexualaren orientazioa deskubritu, onartu eta publikoki adierazteko prozesua nerabezaroaren bukaeran amaitu daiteke. Ikertutako pertsonen adinak kontuan hartuz gero, baieztatu daiteke etorkizunean beren burua homosexual gisa hartuko duten pertsona ugari sexu-desiraren orientazioa integratzen ari direla. Hona hemen prozesu horren faseak: a) sexu bereko estimuluei emandako erantzun erotikoa onartzea; b) desiraren orientazioaren dimentsio homoerotikoa onartzea; c) norberaren nortasunean integratzea; d) sexu- eta genero-identitatea berriro definitzea; e) sexu-desiraren orientazioa publikoki adieraztea; f) esperimentatzea eta esploratzea.

Horrek agerian uzten du prozesuaren hasierako faseetan dauden zenbait pertsonen joera izatea dimentsio hori ezeztatzeko edo ezkutatzeko. Desiraren orientazioari buruzko datu zehatzak 6. taulan daude.



6. taula:- desiraren orientazioa						
	Gizonezkoak		Emakumezkoak		Guztira	
	N	%	N	%	N	%
<b>Homosexuala</b>	27	2,6	26	3	53	2,8
<b>Heterosexuala</b>	978	94,9	792	92,8	1.770	93,9
<b>Bisexuala</b>	13	1,3	21	2,5	34	1,8
<b>Zehaztu gabe</b>	13	1,3	14	1,6	27	1,4

Nerabegaroko portaera homosexualaren inguruko ikerketak gutxi dira, desira erotikoaren orientazioaren integrazioa adin horretan egituratzen ari baita. Lehenengo hurbilketan, lehenengo adinetako esplorazio-portaerak eta etorkizuneko sexu-orientazioa adierazten duten portaerak bereizi behar ditugu (Fuertes et al., 1995). Andaluziako gazteen artean egindako ikerketa garrantzitsu batean, sexu bereko pertsonekin esperientzia erotikoren bat izan zutela adierazi zuten mutilen % 15ek eta nesken % 10ek, gutxi gorabehera. Hala ere, mutilen % 3k eta nesken % 2k harreman homosexualak bakarrik zituztela adierazi zuten (A. Oliva et al., 1993). Ikusten dugunez, lortutako datuak bat datoz aurreko datuekin, eta badirudi denboran zehar egonkor mantentzen direla. Edonola ere, homosexualitatearen inguruko datuak kontu handiz baloratu behar dira, nabarmen homofobikoa den gizartean argi dagoelako «desiragarritasun soziala» aldagaiak erantzunak baldintzatzen dituela. Gizartean homosexualitatearen onarpena handitzen den neurrian, agian nor bere iritzia askatasun handiagoz adierazi ahal izango du. Ildo horretan, duela gutxiago Asturiasen eta Euskadin egindako ikerketetatik lortutako datuek diote ehuneko hori % 9 dela, eta nerabegaroko amaieran dauden emakumeen artean, zertxobait jaisten dela. Ehunekoak benetako populaziora aplikatuz gero, emakume eta gizon homosexualen kopurua nahiko handia dela ohartuko gara. Horrek sentzibilizazio berezia izatea eskatzen du sexu-hezkuntzan eurek dituzten beharrei dagokienez.

### 2.2.1.2.- Masturbazioa

Nerabegaroren hasieran haurtzaroko masturbaziotik —egozentrikoa eta autoerotikoa, gizabanakoak bere-berekoak dituen plazer sentzazioetan zentratuta— heldutasunekora pasatzen da, non iruditan eta fantasia erotikotan oinarritutako kanpokoarekiko proiektio nabarmena ematen baita. Nerabegaroen, desira erotikoaren jokabidearen adierazpena masturbazioa da, eta sexuon arteko garapen-diferentziak izanagatik ere, hori da jokabide ohikoena emakumeengan zein gizonengan.

Hala ere, erotismoaren garapena ez da simetrikoa emakumeengan eta gizonengan. Ikerketa gehienek adierazten dute emakumeak beranduago hasi eta gutxiagotan masturbatzen direla; gizonezkoak, ordea, lehenago eta maizago. Ildo horretan, ikerketa honetatik ateratako emaitzek baieztapen hori egiaztatzen dute; hala, mutilen % 96,1 masturbatu egin dira inoiz, eta nesken % 35,6 (7. taula).

7. taula: Inoiz masturbatu zara?						
	Gizonezkoak		Emakumezkoak		Guztira	
	N	%	N	%	N	%
<b>Bai</b>	1.006	96,1	308	35,6	1.314	68,8
<b>Ez</b>	41	3,9	556	64,4	597	31,2

Espero zen bezala, masturbatzen hasten diren adina ezberdina da mutilen eta nesken artean. Neskak **14,41 urterekin** hasten dira masturbatzen gutxi gorabehera, eta mutilak, berriz, nabarmen lehenago, **12,29 urterekin**, alegia. Aurkitutako diferentziok estatistikoki esanguratsuak dira ( $t = -14.26$   $p < .001$ ).

Lortutako datuak aurrez egindako beste ikerketetan eskuratutakoen antzekoak dira. Hainbat ikerketek diote mutilak neskak baino sarriago masturbatzen direla. Asturiasko gazteen sexu-jarreraren inguruko txostenean 15 eta 21 urte bitarteko 1.048 nerabeen lagina hartu zuten; mutilen % 98,4 eta nesken % 73,8 masturbatzen zirela ondorioztatu zuten (Fernández del Valle, Bravo Arteaga, García Ruíz eta Uría Urraza, 2003). Lehenago egindako ikerketa baten arabera, non Euskal Autonomia Erkidegoko 16 eta 20 urte arteko 300 nerabeen lagina hartu baitzen, mutilen % 99 eta nesken % 53 masturbatzen ziren (Gómez-Zapiain, 2005). Apur bat harrigarria da, ikerketa honen arabera, masturbatzen diren emakumeen ehunekoa hain baxua izatea aipatutako ikerketekin alderatuta.

Zalantzarik gabe, laginaren batez besteko adina da kausa. Ikerketa honen helburuetako bat bereziki DBHko ikasleria aztertzea zenez gero, eskola-maila horretako ikasleen populazioa % 41 izan zen; hortaz, laginaren batez besteko adina 16 urte izan ziren, beste ikerketena baino pixka bat baxuagoa. Garapenaren ikuspegitik, badirudi emakumeen artean autoerotismoa geroago agertzen dela.

### 2.2.1.3.- Sexu-esperientziaren maila historikoa

Sexu-esperientziaren maila historikoa Schofield-ek (1965) proposatutako bost maileri jarraiki aztertu dugu. Hona hemen maila bakoitza, definituta:

- 1. maila.** Sexu-esperientzia gutxi edo batere ez. Besarkadak, musuak masailetan, laztanak eskuetan, edo eskutik edo gerritik helduta paseatzea.
- 2. maila.** Musuak ezpainetan, mihia tartean dela. Laztanak gorputzeko beste ataletan, intentzio erotiko handiagorekin, baina arroparen gainetik beti.
- 3. maila.** Koitora hurbiltzen diren intimitateak, koitora iritsi gabe. Zuzenean gorputzean egindako laztanak, aktibazio erotikoa eta sexu kitzikapena hartzen ditu barne maila horrek. Orgasmo partekatuak izan ditzakete.

**4. maila.** Aurreko mailetakoa esperientzia guztia integratu eta koito-esperientzia ere barne hartzen du. Maila horretan sartzen dira sexu-historian koito-esperientzia pertsona bakar batekin izan duten pertsonak.

**5. maila.** 4. mailarekin konparatuta duen aldaketa bakarra da 5. mailako pertsonen pertsona bat baino gehiagorekin izan dituztela koitodun sexu-esperientziak; ondorioz, esperientzia-maila handiagoa dute.

8. taula:- sexu-esperientziaren maila						
	Gizonezkoak		Emakumezkoak		Guztira	
	N	%	N	%	N	%
<b>Batere ez</b>	184	18	146	17,1	330	17,6
<b>Laztanak</b>	286	28	181	21,1	467	24,9
<b>Intimitateak</b>	164	16,1	162	18,9	326	17,4
<b>Koitoa</b>	161	<b>15,8</b>	185	<b>21,26</b>	346	18,4
<b>Koitoa +</b>	225	<b>22,1</b>	182	<b>21,30</b>	407	21,7

Lortutako datuek (8. taula) emakumezkoen sexu-esperientzia gizonezkoena baino handiagoa dela adierazten dute. Sexu-esperientziaren maila baxuetan gizon gehiago daude, maila gorenean aurkakoa gertatzen den bitartean. Sexu-esperientziaren maila ezberdinen eta sexua aldagaiaren arteko maiztasun-banaketa estatistikoki esanguratsua da ( $\chi^2 = 20,02$   $p < 001$ ).


Informazioa sinplifikatzeko modu bat sexu-esperientziaren mailak bostetik hirura murriztea da:

- 1. maila:** sexu-esperientzia gutxi edo batere ez. Laztanak eskuetan edo gorputzeko beste lekuetan, baina beti arroparen gainetik, besarkadak, musuak masailetan.
- 2. maila:** koitora hurbiltzen diren intimitateak, koitora iritsi gabe. Zuzeneko estimulazioa zona erogenoetan, eta orgasmo partekatuak ere hemen sartzen dira.
- 3. maila:** biografian zehar koitodun sexu-harremanak pertsona bat edo gehiagorekin izatea.

9. Taulan sexu-esperientziaren mailen bertsio laburtuaren emaitzak erakusten dira.


9. taula:- sexu-esperientziaren maila (laburtua)						
	Gizonezkoak		Emakumezkoak		Guztira	
	N	%	N	%	N	%
<b>1. maila</b>	470	46,0	327	38,2	797	42,5
<b>2. maila</b>	164	16,1	162	18,9	326	17,4
<b>3. maila</b>	386	<b>37,9</b>	367	<b>42,9</b>	753	<b>40,1</b>

Datuok adierazten dute lagin osoaren % 40,1ek sexu-esperientzia maila altua dutela; hau da, koitodun sexu-harremanak pertsona bat baino gehiagorekin izan dituzte, eta % 42,5ek, berriz, ez dute esperientziarik. 2. mailak intimitate erotikoen maila handia lortu baina koitora iritsi ez diren pertsonak hartzen ditu; horiek laginaren % 17,4 osatzen dute. 2. eta 3. mailak batuz gero, ohartuko gara ikertutako populazioaren % 57,5ek sexu-esperientzia maila nahiko altua dutela. 1. Irudiko grafikoan ikus daitekeenez, emakumezkoen sexu-esperientzia gizonezkoena baino handiagoa izan ohi da.



**Irudia 1.** Sexu-esperientziaren maila historikoa, mailaren eta sexuaren arabera.


Sexu-esperientziaren maila bakoitzera heltzen diren adinaren inguruan, asmo erotikoa duten lehenengo musu eta laztanak 13 urte inguruan gertatzen direla aurkitu dugu (13,3 urterekin mutilak, 13,66 urterekin neskak). Koitotik hurbil dauden lehenengo sexu-intimitateen batez besteko adina 15 urte inguruan kokatzen da, eta koito-esperientziak izatekoa, aldiz, 16 urte inguruan. Ez da aurkitu sexuen arteko diferentzia estatistiko esanguratsurik (2. irudia).



**Irudia 2.-** Sexu-esperientziaren mailak, adinaren arabera.

Aurretiaz egindako ikerketa gehienei jarraiki, lehenengo harreman erotikoak oso gaztetan gertatzen dira. Ildo horretan, Malo de Molinak (1992) adierazi zuen bere lagineko pertsonen artean "1986. urtean 14 eta 29 urte inguru zituztenak" koitorik gabeko lehenengo esperientzia izateko adina, batez beste, 13,4 urte zirela gizonentzat eta 14,4 emakumeentzat. Datuok gerora egindako beste ikerketetatik lortutakoen antzekoak dira (García Blanco, 1994; A. Oliva, Serra, eta Vallejo, 1993). 2005. urtean, sexu-esperientziatik eratorritako arriskuari dagozkion bitartekari afektiboen inguruko ikerketa batek, zeinak 16 eta 20 urte arteko euskal nerabeak oinarri hartu baitzituen, erakutsi zuen lehenengo mailaren (musuak) batez besteko adina 14,29 urte direla, bigarrenarena (koitotik hurbil dauden intimitateak) 16,2 eta hirugarren mailarena (koittoa) 17,24 bi sexuentzat (Gómez-Zapiain, 2005).

Ikerketa honetan lortutako datuak (2011) aipatu berri ditugunekin (2005) konparatzen baditugu, lehen sexu-esperientziaren adina aurreratu egin dela konturatuko gara.



**Irudia 3.-** Sexu-jardueran hasteko batez bestekoen mailen araberako konparazioa, 2005 - 2011 urteren artean.

3. Irudiak euskal nerabeen populazioaren sexu-esperientziarekiko adinaren arabera bilakaera erakusten du, 2005 eta 2011 urte bitartean. Datuoi esker, egiaztatu dugu sexu-jarduerarako maila ezberdinetara sartzeko adina urtebete inguru aurreratu egin dela 2005etik hona egungo nerabeen biografian. Ez dugu sexuen arteko diferentzia esanguratsurik aurkitu.

Beste ikerketa batzuek nerabeen arteko harremanen adinak aurrera egin duela berretsi dute. Espainiako gazteriari buruzko 2000. urteko txostenak (Gazteriaren Institutua) adierazi zuen batez bestekoa 17,4 urte zirela mutilentzat eta 18,8 urte nesKentzat, aipatutako urte horietan. Txostenak erakutsi zuen koitodun sexu-harremanak izateko unea lau hamarren aurreratu zela 1995. urteko datuekin konparatuta. Urte horretan, batez bestekoa 17,8 eta 18,4 urte izan ziren, hurrenez hurren, mutilentzat eta nesKentzat. Gazteriaren Institutuaren 2008. urteko txostenaren arabera, 1996, 2000 eta 2004ko txostenen artean ez dago apenas diferentziarik sexu-esperientzian hasteko batez besteko adinari dagokionez. 2008. urteko txostenean, aldiz, aurrerapena gertatu dela ikus daiteke: 16,5 gizonezkoentzat eta 17,2 emakumezkoentzat. Ikerketa honek emandako datuen bidez Euskadin adinak aurreratu egin direla egiaztatu dugu, eta adierazi den bezalaxe, honako adin hauetan ezarri dira: 15,6 urte nesken kasuan, eta 15,8 urte mutilen kasuan; estatistikoki begiratuta, diferentzia ez da esanguratsua. Datuok perspektibaz ikusita eta 2005-11 tartera mugatuta, hasteko adina aurreko tartetan baino gehiago aurreratu dela ikus dezakegu.

#### 2.2.1.4.- Behartutako sexu-esperientziak

10. taula.- Behartutako sexu-harremanik izan duzu?						
	Gizonezkoak		Emakumezkoak		Guztira	
	N	%	N	%	N	%
<b>Bai</b>	28	2,7	41	4,8	69	3,68
<b>Ez</b>	994	97,3	812	95,2	1.806	96,32

Euren historia sexuarekin behartutako sexu-esperientziarik izan zuten galdetu zitzaizen parte-hartzaileei. 10. taulak erakusten du gizonezkoen % 2,7k eta emakumezkoen % 4,8k baietz esan zutela.

Bortxazko sexu-esperientzien batez besteko adina 14,73 urte dira, eta ez dago diferentzia nabarmenik gizonezkoen eta emakumezkoen artean. Adin-tartea 7 eta 20 urte bitartean dago, moda 15 urte dira eta desbiderapen tipikoa, 2,41.

Hona hemen historian zehar behartutako sexu-esperientziaren bat izan duten pertsonen kalkulua. Euskal Estatistika Erakundearen (Eustat) arabera, ikertutako populazioa 34.108 emakume eta 37.325 gizon izan dira. Behartutako sexu-harremanen inguruan laginetik lortutako ehunekoak aplikatuz gero, emaitza 1.007 gizon eta 1.637 emakume izango litzateke, gutxi gorabehera.

Kalkuluan oinarrituta, harremanok jasan dituzten pertsonen kopurua handia da. Eraso mota horiek hauteman eta aurre hartzeko baliabideetako bat sexu-hezkuntza da.

### 2.2.2.- Sexu-portaera, gaur egun

Biografia pertsonalean zehar lortutako sexu-esperientziaren mailak ez du zertan bat etorri egungo sexu-portaerarekin. Baieztapenak nerabezaroan du zentzu handiagoa, etapa horren garapenezegonkortasunaren eraginez. Horregatik, puntu honetan gaur egungo sexu-portaeraren ezaugarriak aztertuko dira. Emaitzak 11. taulan jaso dira.

Aztertutako sexu-portaeraren kategoriak hauek izan ziren:

- a) Sexu-esperientziarik gabe
- b) Besarkadak, musuak, laztanak, baina beti arroparen gainetik.
- c) Besarkadak, musuak, laztanak, genitaletan eta bularretan ere, baina koitora iritsi gabe.
- d) Gaur egun, koitodun harremanak ditut.

Lehenengo hurbilketan, eta lagina osorik hartuta, galdetegia erantzun dutenen heren batek (% 32,6), gutxi gorabehera, egun koitodun sexu-harremanak dituela ikusten dugu. % 10ak koitora hurbiltzen diren intimitateak dituzte, baina koitora iritsi gabe. % 8,8k sexu-esperientzia eskasa dute egun; hau da, musuak eta laztanak arroparen gainetik. Laginaren erdiak (% 48,6), gutxi gorabehera, ez du sexu-harremanik.

Egungo sexu-portaeraren hurbilketa orokorrean sakontzeko, sexu- eta ikasketa-mailaka aztertuko ditugu. DBHko 4. mailan dagoen taldeari dagokionez, aipatu beharra dago % 18,9k koitodun sexu-harremanak dituztela. Emakumezkoen ehunekoak gizonezkoena baino pixka bat handiagoa da; hurrenez hurren, % 19,9 eta % 18,8. Koitora hurbiltzen diren intimitateak dituzten pertsonak % 10 dira. Talde horretan emakumezkoen proportzioa handiagoa dela ikusten dugu berriz ere (nesken % 14,3 eta mutilen % 7,9). Amaitzeko, sexu-esperientzia gutxi edo batere ez duen taldeari begiratuta, % 70,3 guztizko kopuruan gizonezkoen proportzioa emakumezkoena baino handiagoa da (hurrenez hurren, % 74,1 eta % 65,7). Ehunekook maila baxuenak batuz lortzen dira.

11. taula:- sexu-esperientzia, egun								
	Ez dut sexu-harremanik		Besarkadak, musuak, laztanak, baina beti arroparen gainetik.		Besarkadak, musuak, laztanak, genitaletan eta bularretan ere, baina koitora iritsi gabe.		Egun, koitodun harremanak ditut.	
<b>Guztira</b>								
	N	%	N	%	N	%	N	%
Gizonezkoak	553	53,8	90	8,8	83	8,1	301	29,3
Emakumezkoak	361	42,3	75	8,8	106	12,4	212	<b>36,5</b>
Guztira	914	48,6	165	8,8	189	10,0	613	32,6
<b>DBH</b>								
Gizonezkoak	269	62,9	48	11,2	34	7,9	77	18,8
Emakumezkoak	188	52,8	46	12,9	51	14,3	71	19,9
Guztira	457	58,3	94	12,0	85	10,8	148	18,9
<b>Batxilergoa</b>								
Gizonezkoak	242	53,7	32	7,1	45	10,0	132	29,3
Emakumezkoak	153	38,2	29	7,2	53	13,2	166	<b>41,4</b>
Guztira	395	46,4	61	7,2	98	11,5	298	35,0
<b>Erdi-mailako heziketa-zikloa</b>								
Gizonezkoak	16	27,1	6	10,2	2	3,4	35	59,3
Emakumezkoak	13	22,8	0	0	0	0	44	<b>77,2</b>
Guztira	29	25	6	5,2	2	1,7	79	68,1
<b>Goi-mailako heziketa-zikloa</b>								
Gizonezkoak	26	29,2	4	4,5	2	2,2	57	64,0
Emakumezkoak	7	17,5	0	0	2	5	31	<b>77,5</b>
Guztira	33	25,6	4	3,1	4	3,1	88	68,2

Espero zen bezala, sexu-jardueraren mailek gora egiten dute adinarekin; horregatik, gero eta gehiago dira batxilergoan zehar, sexu-jardueran hasten diren pertsonak. Alabaina, 10. taulan adierazten den bezala, progresioa ez da simetrikoa sexuei dagokienez. Emakumezkoen % 41,4k eta gizonezkoen % 29,3k diote koitodun sexu-harremanak dituztela.


Koitoak hurbil dauden sexu-intimitateak dituzten pertsonen multzoari begiratuta, ehuneko nabarmen jaisten dela eta sexu-esperientziaren maila horretan nesken kopurua mutilena baino handiagoa dela ohartuko gara.

Batxilergoan, sexu-esperientziarik gabeko gizonezkoen proportzioa (% 64,4) emakumezkoena (% 45,4) baino aski handiagoa da.


Heziketa-zikloetan —erdi-mailakoak zein goi-mailakoak—, sexualki aktiboak diren pertsonen proportzioa nabarmen handitzen da. Gorakada hori garapen pertsonalarekin erlaziona daiteke, erdi-mailako heziketa-zikloen batez besteko adina 18,8 baita, eta goi mailakoena, berriz, 19,9. DBHko ikasleek, batez beste, 15,58 urte dituzte, eta batxilergoek, aldiz, 16,88. Hala eta guztiz ere, azpimarratu behar dugu emakumezkoen sexu-jarduerak gizonezkoena gainditzen duela eskola-maila guztietan.

4., 5. eta 6. irudiek sexu-esperientziaren maila bakoitzeko ikasleen gaur egungo ehunekoak adierazten dituzte.






**Irudia 4-** sexu-esperientzia DBHn, sexuen arabera eta ehunekotan.



**Irudia 5:-** sexu-esperientzia batxilergoan, sexuen arabera eta ehunekotan.




**Irudia 6:**- sexu-esperientzia heziketa-zikloetan, sexuen arabera eta ehunekotan.

Gaur egungo sexu-esperientziaren maila –esperientzia-mailaren zein eskola-mailen arabera– aztertu ondoren, interesgarria da azken urteotako sexu-portaeraren bilakaera egiaztatzea, laginaren guztizkoari dagokionez. Adierazi bezala, 2005. urteko datuak Euskal Herriko Unibertsitateko Gómez-Zapiain (2005) irakasleak egindako ikerketari dagozkio.

7. Irudian denbora-tarte horretan sexu-esperientzia areagotzen dela ikus dezakegu. Ikus dezakegunez, esperientziarik gabeko pertsonen proportzioek apur bat behera egiten dute. Beherakada hori emakumeen kasuan nabarmenagoa da. 1. mailan (esperientzia gutxi) ez da aldaketa handirik ikusten. Zalantzarik gabe, datu-konparaketa horretan interesgarriena 2. mailako ehunekoaren (intentsitate erotik handiko esperientziak, baina koitorik gabekoak) jaitziera da emakume zein gizonen kasuan; koito-esperientziari dagokion 3. mailak, ordea, gora egin du. Datuok beste aurrekariak berretsi egiten dituzte. Izan ere, sexu-esperientzia izateko unea urtebete aurreratu da, gutxi gorabehera, eta koito-jarduera areagotu egin da; azken joera hori emakumezkoen artean da nabarmenagoa.

3. mailari dagokion talde horretan egiazta daiteke azken sei urteotan, koitodun sexu-esperientzien kopuruak gora egin duela. Azpimarratu behar da, era berean, gorakada bi sexuetan gertatzen den arren, emakumeen taldekoa kontuan hartzekoa dela.



**Irudia 7:-** Sexu-portaeraren bilakaera, 2005. urtetik 2011. urtera bitartean.

Egungo datuen analisisira itzuliz, sexu-harremanak izateko modua deskribatuko dugu jarraian. 12. taulak harreman mota adierazten du. Hona hemen proposatutako aukerak: bikotekide finkorik izan gabe sexu-harremanak dituzten pertsonak, sexu-harremanak euren bikotekidearekin dituztenak, eta bikotekideaz gain, beste pertsona batzuekin sexu-harremanak dituztenak.

Datuok adierazten dute bikote-harremanen esparruan, sexu-harremanak dituzten emakumezkoen proportzioak gizonezkoena gainditzen duela. Gizonezkoek, aldiz, konpromisorik gabeko sexu-harremanak izateko joera handiagoa dute. Diferentzia hori azal dezakeen arrazoi bat izan daiteke garapen-unearen eraginez, emakumeen bikotekideak adin handiagoko gizonak izan ohi direla. Adin-diferentziak nerabezaroaren bukaeran eta lehen gaztaroan orekatu ohi dira.

Sexu-harremanen maiztasunaren inguruan, adina handitzen den heinean sexu-harremanen maiztasuna ere handitzen dela erakusten dute datuok (13. taula). Aldagai horren analisisa egiteko hurrengo kategoriak proposatu ditugu:

- a) Aldian behin: urtean zenbait alditan.
- b) Noizean behin: hilean hainbat aldiz.
- c) Askotan: astean hainbat aldiz.

12. taula:- Egun, nolakoak dira zure sexu-harremanak?						
	Ligatzen dudanean bakarrik ditut sexu-harremanak; ez dut bikotekide finkorik (neska ala mutila).		Bikotekide finkoa dut (neska ala mutila) eta sexu-harremanak ditut harekin.		Bikotekide finkoa dut, baina noiz edo noiz, beste pertsona batzuekin ditut sexu-harremanak.	
DBH						
	N	%	N	%	N	%
Gizonezkoak	76	52,1	63	43,2	7	4,8
Emakumezkoak	51	36,2	88	62,4	2	1,4
Batxilergoa						
Gizonezkoak	116	53,5	92	42,4	9	4,1
Emakumezkoak	72	32,9	143	65,3	4	1,8
Erdi-mailako heziketa-zikloa						
Gizonezkoak	17	38,6	23	52,3	4	9,1
Emakumezkoak	14	31,1	29	64,4	2	4,4
Goi-mailako heziketa-zikloa						
Gizonezkoak	33	48,5	35	51,5	0	0
Emakumezkoak	6	18,2	27	81,8	0	0

Hemen ere, konturatzen gara sexu-jardueraren maiztasuna handiagoa dela emakumeengan gizonengan baino.

Azken bi hilabeteotan izandako sexu-harremanen kopuruari dagokionez, emakumezkoen batez bestekoa 11,92 da, eta gizonezkoena, berriz, 11,28.

13. taula:- Zenbateko maitasunez dituzu sexu-harremanak egun?						
	Aldian behin (urtean hainbat aldiz).		Noizean behin (hilabetean hainbat aldiz).		Askotan (astean behin edo gehiagotan).	
DBH						
	N	%	N	%	N	%
Gizonezkoak	49	41,2	44	37,0	26	21,8
Emakumezkoak	31	31,3	45	45,5	23	23,2
Batxilergoa						
Gizonezkoak	88	41,1	87	40,7	39	18,2
Emakumezkoak	41	21,5	81	42,4	69	36,1
Erdi-mailako heziketa-zikloa						
Gizonezkoak	7	16,7	18	42,3	17	40,5
Emakumezkoak	9	18,8	17	35,4	22	45,8
Goi-mailako heziketa-zikloa						
Gizonezkoak	23	30,7	29	38,7	23	30,7
Emakumezkoak	5	14,7	8	23,5	21	61,8

Gainera, sexualki aktiboak diren pertsonen harreman horien inguruan galdetu zitzaizkien: azken bi hilabeteotako benetako maiztasuna, horietako zenbat izan ziren koitodunak eta horietako zenbatetan ez zuten babes-neurririk hartu. Emaitzak 14. taulan daude. Horien bidez, egiaztatzen

dugu sexu-harreman guztien helburua ez dela koittoa, eta babesik gabeko koitoen batez bestekoa altu samarra dela, batez ere goi-mailako heziketa-zikloetako emakumeei dagokienez.

<b>14. taula:- sexu-jarduera azken bi hilabeteotan</b>						
	Azken bi hilabeteotako maiztasuna.		Azken bi hilabeteotako koito-maiztasuna.		Babesik gabe, maiztasuna.	
	<b>N</b>	<b>X</b>	<b>N</b>	<b>X</b>	<b>N</b>	<b>X</b>
Gizonezkoak	270	11,28	264	8,58	250	1,91
Emakumezkoak	266	11,92	254	8,62	236	2,27
<b>DBH</b>						
Gizonezkoak	67	9,03	67	6,32	60	1,53
Emakumezkoak	57	9,22	54	4,94	50	,94
<b>Batxilergoa</b>						
Gizonezkoak	118	10,98	116	7,93	109	2,24
Emakumezkoak	148	12,35	141	9,26	134	2,29
<b>Erdi-mailako heziketa-zikloa</b>						
Gizonezkoak	34	15,61	33	13,69	31	2,19
Emakumezkoak	33	13,42	31	10,03	26	2,07
<b>Goi-mailako heziketa-zikloa</b>						
Gizonezkoak	51	12,03	48	9,79	50	1,46
Emakumezkoak	28	13,39	28	10,96	26	4,92

Sexualki aktiboak diren pertsonen lehenengo sexu-esperientzia izateko arrazoiaren inguruan galdetu zitzaizkion, maitemindua zeudela erantzun zuten emakumezkoek, eta gizonezkoek, aldiz, probatu beharreko esperientzia zelako. Harrigarria da sexu-jardueran hasteko motibazioaren inguruko datu hori mantentzea urteetan zeharreko sexu-portaera oinarri duten ikerketa gehienetan. Denborarekin aldatzen doazen beste jokabide batzuetan, ordea, ez da hala gertatzen; adibidez, maiztasun-indizeak, hasierako adina eta jarrerazko prestutasuna parekatzen dira emakumeengan eta gizonengan. Azalpen bat zera izan daiteke, gizarte-konbentzioek, hau da, hezkuntza-jarraibide sexistek —ñabartuak izan arren— genero-roletatik gizarteak espero duenaren arabera adierazten direla; hala, sexua maitasun-esperientziaren barruan sartzeko joera izango lukete emakumezkoek, eta gizonezkoek, aldiz, norbera sendotzeko ekintzat hartzekoa. Beste azalpen bat izango litzateke motibaziook jatorrak direla onartzea; hau da, ezinbestean gizarte-testuinguruaren eraginpean egon ordez, giza sexuazioari berezkoak zaizkion alderdien zati direla, programa genetikotan oinarritzen direnak eta erabakigarriak ez baizik eta aurrez bultzatzen duten faktoreak direnak. Zuhurrena da motibaziook elkarri eragiten diotela eta zehazten direla, eta gizabanako bakoitzean modu jakin batean adierazten direla pentsatzea. Ezin da alde batera utzi desiragarritasun sozialak aztertutako adin-taldeetan duen efektua, bizi-esperientzia urria duten pertsonak baitira. 15. taulari begiratu gero, genero-diferentzia horiek nahiko handiak direla eta hezkuntza-maila guztietan mantentzen direla ohartuko gara.

<b>15. taula:- sexu-esperientzian hasteko arrazoi nagusia.</b>						
	Maitemindua nengoen.		Probatu behar nuen zerbait zen.		Ez zen nire erabakia izan.	
<b>DBH</b>						
	N	%	N	%	N	%
Gizonezkoak	72	41,4	83	47,7	19	10,9
Emakumezkoak	82	61,7	39	29,3	12	9,0
<b>Batxilergoa</b>						
Gizonezkoak	102	41,5	116	47,2	28	11,4
Emakumezkoak	134	57,0	77	32,8	24	10,2
<b>Erdi-mailako heziketa-zikloa</b>						
Gizonezkoak	18	38,3	23	48,9	6	12,8
Emakumezkoak	24	50,0	17	35,4	7	14,6
<b>Goi-mailako heziketa-zikloa</b>						
Gizonezkoak	28	35,9	42	53,8	8	10,3
Emakumezkoak	22	64,7	11	32,4	1	2,9

Koitoa, berez, ez da esperientzia erotikoaren amaierako helburua. Asetze sexual handiena koitoko orgasmoarekin lortzen dela dioten irizpide orokorra berriro aztertu beharko litzateke sexu-hezkuntzari dagokionez. Koitoak, hala ere, garrantzia lortzen du esperientzia erotikoaren zati den neurrian, ez zentzu erotikoan, baizik eta sexu-osasunarekin lotuta. Hori dela-eta, sexu-esperientziaren barruan sexu bakoitzak koitoari ematen dion garrantzia aztertu zen. Abiatu ginen hipotesia izan zen koitoa gizonezkoentzat emakumezkoentzat baino garrantzitsuagoa zela, eta horren ondorioz, beharbada, gizonezkoek koitora iristeko apur bat presiona zitzaketela emakumezkoak.

Hala ere, eskuratutako datuek ez dute aurretiko planteamendu hori egiaztatzen; gehienaz ere, erlatibizatu eta ñabartu egiten dute. 16. taulan ikus dezakegu sexualki aktiboak diren lagineko pertsonen % 18,2k besterik ez dutela uste koitoa garrantzitsuena denik, nahiz eta horien artean, gizonezkoen proportzioa emakumezkoena baino handiagoa izan (hurrenez hurren, % 21,8 eta %14,9). Gehiengoak uste du (% 75,4) badirela gozatzeko beste modu batzuk. Kasu horretan, emakumezkoen aldeko diferentzia txiki bat dago. Oso ehuneko txikia osatzen dute koitoa garrantzitsua ez dela diotenen (% 6,3), emakumezkoen proportzioa apur bat handiagoa izanda.

<b>16. taula:- zenbateraino da koitoa garrantzitsua zuretzat?</b>						
	Niretzat, koitoa da garrantzitsuena.		Gozatzeko beste modu batzuk daude.		Niretzat, koitoa ez da garrantzitsua.	
	N	%	N	%	N	%
Gizonezkoak	64	21,8	213	72,7	16	5,5
Emakumezkoak	46	14,9	241	78,0	22	7,1
Guztira	110	18,2	454	75,4	38	6,3

Lehen, behartutako sexu-harremanei buruzko datuak ikuspegi historikotik landu ditugu.

<b>17. taula:- gogoan al duzu behartutako sexu-harremantik eduki izana?</b>				
	<b>Gizonezkoak</b>		<b>Emakumezkoak</b>	
	<b>N</b>	<b>%</b>	<b>N</b>	<b>%</b>
<b>Bai</b>	12	4,1	21	7
<b>Ez</b>	280	95,4	278	93

### 2.2.3.- Sexu-osasuna eta sexu-jarduera

Lagineko EAEko nerabe eta gazteen sexu-portaera aztertu ostean, horrekin lotutako osasun-adierazleei helduko diegu. Horretarako, preserbatiboaren erabilera, metodo antikonzeptiboaren erabilera eta larrialdiko kontrazepzioa aztertuko dira. Haurdunaldien eta borondatez etendako haurdunaldien tasak ere ikusiko ditugu.

#### *2.2.3.1.- Preserbatiboaren erabilera*

Sexualki aktiboak ziren pertsonen sexu-portaeraren inguruko galdera zehatzei erantzun zieten. Preserbatiboaren erabilerekin lotuta, gizonezkoen % 88,4k eta emakumezkoen % 77,9k erabiltzen zutela adierazi zuten; gizonezkoen % 11,6k eta emakumezkoen % 22,1ek ez zituztela erabiltzen esan zuten (18. taula). Datuon arabera, sexualki aktiboak diren hamar gizonetatik batek ez luke preserbatiborik erabiliko koitodun sexu-harremanetan, eta emakumezkoen kasuan, hamarretatik bik.

Emitza horien inguruan, aipatzekoa da koitoan babes-neurririk hartzen ez duten emakumezko eta gizonezkoen arteko ehunekoen aldea. Preserbatiborik erabiltzen ez duten emakumezkoen kopuruak ia bikoiztu egiten du gizonezkoena.

<b>18. taula:- Preserbatiboaren erabilera</b>				
	<b>Gizonezkoak</b>		<b>Emakumezkoak</b>	
	<b>N</b>	<b>%</b>	<b>N</b>	<b>%</b>
<b>Bai</b>	256	88,4	240	77,9
<b>Ez</b>	34	11,6	68	22,1

Datuok, berez, ez dira nahikoak arriskuaren zenbatespena kalkulatzeko. Lehenik eta behin, desiragarritasun sozialaren eragina kontuan hartu behar da. Aldagai hori zaila da oso kontrolatzen, eta errealitate objektiboan oinarritu beharrean, gizarte-testuinguruak eurengandik espero duenaren arabera erantzuteko ikasleen joerari dagokio. Batzuk egoera horretan egin beharko litzatekeenaren arabera erantzungo lukete, benetan egiten dutena azaldu ordez.

Bigarrenez, preserbatiboa erabiltzen dutela baieztatzen duten horien fidagarritasuna onartuz, nola erabiltzen den zehaztu behar da. Adibidez, desiragarritasun sozialaren eraginez, baliteke noizbait preserbatiboa erabili izan duten pertsonak euren burua erabiltzaitzat hartzea nahiz eta praktikan arduragabeki erabili, bereziki gai horren inguruan zuzenean galdetzen zaienean. Horrenbestez, preserbatiboa erabiltzen zutenei zenbateko maiztasunarekin egiten zuten galdetu zitzaien. Emaitzak 19. taulan erakusten dira. Taula horretan jasotako datuak garrantzitsuak dira estatistikoki ( $\chi^2 = 227,4$ ,  $ag=4$ , gizonezkoak /  $p<,001$   $\chi^2 = 163.5.4$   $ag=4$   $p<,001$ , emakumezkoak).

19. taula:- preserbatiboa erabiltzen duten maiztasuna, preserbatiboa erabiltzen dutela adierazi duten pertsonen artean										
	Ez dut inoiz erabiltzen, koitodun sexu-harremanak ditudan arren.		Ia inoiz (koitora iristen naizenetatik % 25ean).		Noizean behin (koitora iristen naizenetatik % 50ean).		Ia beti (koitora iristen naizenetatik % 75ean).		Betia (koitora iristen naizenetatik % 100ean).	
	N	%	N	%	N	%	N	%	N	%
Gizonezkoak	0	0	8	3,1	15	5,9	46	18,0	187	73,0
Emakumezkoak	0	0	3	1,3	15	6,3	56	23,8	163	68,8

Horien arabera, preserbatiboa baliatzen dutela adierazten duten emakumezkoen artean, % 68,8k soilik erabiltzen dute beti; hau da, koitua gertatzen den guztietan. Gizonezkoen kasuan berriz, beti baliatzen dutela adierazi dute % 73k. Babes-neurririk gabeko koito kopuruarekin lotuta, emaitza horiek arriskuaren zenbatespena zehazteko aukera ematen dute. Beste era batera esanda, gizonezkoen % 88,4k eta emakumezkoen % 79,2k preserbatiboa erabiltzen badute, horrek esan nahi du emakumezkoen % 31,2k eta gizonezkoen % 17k arduragabeki erabiltzen dutela; hots, koitua gertatzen den aldi guztietan ez.


Alabaina, preserbatiborik erabiltzen ez duten emakumezkoen % 22,1 aintzat hartuz gero (15. taula), horren arrazoia zein den pentsatu beharko genuke: baliteke beste antisorgailuren bat erabiltzea edota sexu-harremanak bikotekide egonkorrekin izatea. 8. Irudiko grafikoak preserbatiboaren erabileraren proportzioak irudikatzen ditu, beste metodo antikontzeptiboekin lotuta eta emakumeen artean.

Preserbatiborik erabiltzen ez dutela adierazi zuten emakume sexualki aktiboaren artean, % 52k anobulatorioak erabiltzen dituzte. Nahi gabeko haurdunaldietatik babesten direla uste izan dezakegun arren, sexu transmisiozko infekzioen arriskua mantentzen da, sexu-jarduera bikote



egonkor baten testuinguruan gertatu ezean. Azken horren inguruan galdetu ondoren, datuek erakutsi zuten % 87,9k bikotekide egonkorra zutela.

Hala ere, arriskuaren zenbatespenari dagokionez, azpimarratu behar da preserbatiborik erabiltzen ez duten emakumezkoen % 22,1eko proportzioaren barruan, % 28,6k ez dutela beste metodorik baliatzen. Hori hala izanda, sexualki aktiboak diren emakumezkoen % 6,23k ez dute inolako babes-neurririk hartzen. Ehuneko hori sexualki aktiboak diren eta koitoa praktikatzan duten emakumezkoen multzotik lortu dugu. Gizonezkoen preserbatiboaren erabileraren inguruko datuei berriro helduz, esan dugu, zentzu hertsian, % 17k arduragabeki erabiltzen dutela. Ondoriozta daiteke, beraz, arriskuan dauden gizonezkoen proportzioa handiagoa dela.



**Irudia 8:-** Metodo antikonzeptiboen erabilera bikote egonkorra izanik preserbatiborik erabiltzen ez duten emakumezkoen artean.

Preserbatiboa erabiltzearen inguruan 2005ean jasotako datuen eta gaur egun ditugun datuen arteko analisiak hainbat desberdintasun utzi ditu agerian. Gizonezkoen artean, preserbatiboa erabiltzen dutenen ehunekoa apur bat igo da 2005etik 2011ra; % 85,2tik % 88,4ra, hain zuzen ere. Emakumezkoen ehunekoa, ordea, nabarmen jaitsi da: 2005ean % 87,1 izan zen, eta 2011n, berriz, % 77,9. Preserbatiboaren erabileran gertatu den jaitsiera horren azalpen bat izan daiteke bikotekide egonkorra izateagatik zenbait emakumek preserbatiboak ez diren beste metodoak erabiltzen dituztela, batez ere anobulatorioak, aurrez aipatu dugun moduan. Interpretazio hori berresteko, frogatu dugu bikotekide egonkorra duten emakumezkoen kopurua handitu egin dela 2011n (% 38,1), 2005. urteko datuekin alderatuta (% 32). Hala ere, ezin dugu baztertu azken

urteotan nolabaiteko erlaxazioa gertatzen hasi dela sexu-jarduerarekin lotutako arriskuen prebentzioari dagokionez; arrazoia, hiesa arrisku hilgarria eta hain arriskutsua ez dela jada.

Preserbatiboa erabiltzearen maiztasunaren inguruan, modu arduratsuagoan erabiltzeko joera antzematen da egun. 2005ean beti erabiltzen zutela adierazi zuten gizonezkoen % 13,6 horretatik orain % 72 dela ikus daiteke 18. taulan. Emakumezkoen artean beti erabiltzen dutenen kopurua ere igo egin da, nahiz eta neurri txikiagoan. Azpimarratu behar da «Ez dut inoiz erabiltzen» kategoriaren barruan, 2005ean gizonezkoen % 9,1 eta emakumezkoen % 11,6 zeudela. 2011n, aldiz, ez da ezein sexu agertzen (20. taula).

<b>20. taula:- preserbatiboaren erabileraren maiztasunaren bilakaera 2005-2011 urteen artean</b>					
	<b>Ez dut inoiz erabiltzen,</b> koitodun sexu-harremanak ditudan arren.	<b>la inoiz</b> (koitora iristen naizenetik % 25ean).	<b>Noizean behin</b> (koitora iristen naizenetik % 50ean).	<b>la beti</b> (koitora iristen naizenetik % 75ean).	<b>Beti</b> (koitora iristen naizenetik % 100ean).
<b>2011</b>					
	%	%	%	%	%
Gizonezkoak	0	3,1	5,9	18,0	73,0
Emakumezkoak	0	1,3	6,3	23,8	68,8
<b>2005</b>					
Gizonezkoak	9,1	4,5	18,5	54,5	13,6
Emakumezkoak	11,6	2,9	4,3	10,1	71

### 2.2.3.2.- Metodo antikonzeptiboaren erabilera

80ko hamarkadaren hasieran, artean ez zegoen hiesik. Gazteak artatzen zituzten familia-plangintzako zentroek ez zuten uste sexu transmisiozko gaixotasunak arazo garrantzitsua zirenik. Sifilia bezalako gaixotasun larriez aparte, gainerakoak gaixotasun arrunt gisa hartzen ziren, antibiotikoekin tratatu zitezkeenak eta aldeko pronostikoa zutenak. Preserbatiboa, beraz, sexu-higienearekin erlazionatu eta oso promiskuoak ziren pertsonen gomendatzen zitzairen. Metodo antikonzeptibo gisa gaizki ikusia zegoen, eragozpen-metodoek, oro har, beste batzuek (anobulatorioak edo UBG kasu) baino fidagarritasun txikiagoa zutelako.

Aurrerago, hamarkada horren erdialdean, hiesa indarrez sartu zen, gordintasun osoz. Oso birulentoa izan zen, eta droga-menpekotasun parenteralarekin eta sexu-jarduerarekin lotu zen. Sexu-transmisiozko infekzio gisa hartu zen, eta heriotza eragin zuen kasu gehienetan. Une horretatik aurrera, preserbatiboak garrantzi handia hartu zuen, hiesa prebenitzeko baliabide eraginkorra bihurtu baitzen.

Hori dela-eta, preserbatiboak gainerako metodo antikonzeptiboak estali ditu, batez ere sexu-jardueran hasten diren nerabe eta gazteen artean. Hori argi eta garbi ikusten da mende honen lehenengo hamarkadan egindako ikerketetan.

21. taulan sexualki aktiboak diren emakumeek zein metodo antikonzeptibo erabiltzen duten ikus dezakegu. Horren arabera, nahi gabeko haurduntzak ekiditeko metodo erabiliena preserbatiboa da. Emakumeen % 60,6k metodo hori darabiltela diote. Bigarren erabilienak anobulatorioak dira —eraztun baginala barne—, baina proportzio nabarmen txikiagoan. Beste metodoen erabilera oso eskasa da. Baliteke aipatutako arduragabekeria larrialdiko kontrazepzioarekin orekatzea, jarraian ikusiko dugun moduan.

21. taula:- metodo antikonzeptiboen erabilera emakumeen artean														
	Ez dut ezein erabiltzen		Anobulatorioak		UBG		Diafragma		Preserbatiboa		Espermizidak		Metodo naturalak	
	N	%	N	%	N	%	N	%	N	%	N	%	N	%
Emakumezkoak	52	17,2	55	18,2	6	2,0	2	0,7	183	60,6	2	0,7	2	0,7

### 2.2.3.3.- Larrialdiko kontrazepzioa

Haurdun ez geratzeko beste modu bat larrialdiko kontrazepzioa edo hurrengo eguneko pilula deritzona erabiltzea da. 18. taulak erakusten digu sexualki aktiboak diren emakumeen % 37,1ek baliabide hori erabili dutela noizbait. Zenbatetan erabili zuten galdetu zitzaientean, datuok erakusten dute erdiak baino zertxobait gehiagok (% 56) behin erabili duela, % 25,7k bitan, % 10,5ek hirutan eta % 7,7k hirutan baino gehiagotan.

22. taula:- hurrengo eguneko pilula erabili duzu inoiz?									
					Gizonezkoak		Emakumezkoak		
					N	%	N	%	
<b>Bai</b>							114	37,1	
<b>Ez</b>							193	62,9	
Zenbat aldiz?									
1		2		3		4		4 baino gehiago	
N	%	N	%	N	%	N	%	N	%
59	56,2	27	25,7	11	10,5	3	2,9	5	4,8

Datuok ikusita, larrialdiko kontrazepzioaren erabilera egokia den zehaztu beharko litzateke. Erabilera egokia egiten dela esango dugu baldin eta haren funtzioa betetzen bada; hau da, preserbatiboa apurtu izanak eragin ditzakeen ondorioak eta antzeko gertakizunak ekiditeko erabiltzen bada. Ohiko antikonzeptibo moduan erabiliz gero, larrialdiko kontrazepzioaren erabilera axolagabetzat joko genuke.

22. taulako datuetan oinarrituta, badirudi hura erabili duten emakumeen artean, erdiak baino gehiagok behin besterik ez dutela erabili. Horrek adieraz lezake erabilera egokia egiten dutela, onartuta, behin-behinean bada ere, kasu hura preserbatiboarekin izandako ezbeharrak izan zela. Hala ere, badirudi emakumeen % 43k bitan edo gehiagotan erabili izan dutela; horrek hurrengo eguneko pilularen nahiz metodo antikonzeptiboaren erabilera arduragabea adierazi dezake.

23. taulan ikus ditzakegu erabili duten emakumeen banaketa eta emakume horien hezkuntza-maila. Sexualki aktiboak diren DBHko emakumeen % 11,3k larrialdiko kontrazepzioa baliatu dute. Batxilergoan, % 39,8 da portzentajea. Erdi-mailako heziketa-zikloetan proportzioa % 50 da, eta goi-mailakoetan, berriz, % 64,5.

23. taula:- koito osteko kontrazepzioaren erabilera, hezkuntza-mailaren arabera								
	DBH		Batxilergoa		Erdi-mailako heziketa-zikloak		Goi-mailako heziketa-zikloak	
	N	%	N	%	N	%	N	%
<b>Bai</b>	8	11,3	64	39,8	22	50,0	20	64,5
<b>Ez</b>	63	88,7	97	60,2	22	50,0	11	35,5
<b>Guztira</b>	71	100	161	100	189	100	31	100

24. taulak preserbatiboaren eta larrialdiko kontrazepzioaren erabileren arteko lotura adierazten du, sexualki aktiboak diren emakumeen kasuan. Preserbatiboa erabiltzen duten emakumeen % 34,2k hurrengo eguneko pilula hartu dute. Preserbatiboa erabiltzen ez duten emakumeen artean, ehunekoak % 53,7 da. Estatistikoki begiratuta, proportziook esanguratsuak dira ( $\chi^2 = 10.24$   $p < .001$ ).

24. taula:- larrialdiko kontrazepzioaren erabilera preserbatiboaren erabileraren arabera					
Larrialdiko kontrazepzioaren erabilera.	Preserbatiboaren erabilera				
		Bai		Ez	
		N	%	N	%
<b>Bai</b>	77	32,4	36	53,7	
<b>Ez</b>	161	67,6	31	46,3	

Sexualki aktiboak diren emakumeen % 33,6k osasun-zentroren batera jo dutela adierazi dute; gainerakoak (% 66,4) ez dira inoiz joan (25. taula). Lehenik eta behin amak eskatuta eta, bigarrenik, lagunek eskatuta baliatzen dute emakumeek osasun-arretarako zerbitzua. Egungo baliabide sanitarioen irisgarritasuna analizatzeaz gain, beharbada gazteei bideratutako osasun-baliabideak ere berraztertu beharko lirateke.

25. taula:- besteak beste, familia plangintzako zentro batera edo osasun-zentro batera jo duzu inoiz?		
	Emakumezkoak	
	N	%
Bai	103	33,6
Ez	204	66,4

#### 2.2.3.4.- Sexu-portaera eta ugalkortasuna

Aurreko puntuetan, prebentzio-neurrien erabilerari buruzko datuak erakutsi dira, hala nola preserbatiboarena, beste metodo antikonzeptiboena eta larrialdiko kontrazepzioarena. Puntu honetan, ugalkortasunari buruzko datuak aztertuko ditugu.

Lehenengo hurbilketan, ikus dezakegu sexualki aktiboak diren emakumeen % 2,9 haurdun geratu izan direla. Ehuneko horren maiztasuna bederatzi emakume dira. Horietatik, zazpi haurdunaldia eten egin zuten eta bik aurrera jarraitu (26. taula).

26. taula:- sexu-portaera eta ugalkortasuna					
Emakumezkoak			Gizonezkoak		
Inoiz geratu zara haurdun?			Haurdunaldiren bat eragin duzu?		
	N	%		N	%
Bai	9	2,9	Bai	32	10,9
Ez	298	97,1	Ez	261	89,1
Seme-alabarik duzu?			Seme-alabarik duzu?		
	N	%		N	%
Bai	2	22,2	Bai	3	9,4
Ez	7	89,9	Ez	29	90,6
Abortatu egin duzu?			Abortatzeko erabakian parte hartu duzu?		
	N	%		N	%
Bai	7	77,8	Bai	9	28,1
Ez	2	22,2	Ez	23	71,9

Harrigarria da haurdunaldiren bat eragin ote duten galdetzean, gizonezkoen % 10,0ek baietz erantzun izana (maiztasun absolutuan, 32 subjektu). Haurdunaldi horietatik, hiruk amaierara arte jarraitu zuten eta gainerakoak eten egin zituzten. Gizonezkoen % 10,9k eta emakumezkoen % 2,9k nahi gabeko haurduntzaren bat izan dutela adierazi dute; diferentzia handia dago bien artean, eta hipotesi moduan, baliteke adin goiztiarretan haurdun geratu diren emakumeak hezkuntza-prozesua eten egin izana boluntarioki edo behartuta, edota haurduntza eten egin duten emakumeek galdetegian hori aitortu ez izana. Gogoratu behar dugu haurdunaldia etetea ezkutuan gordetzen dutela batzuek, emakumearen gertuko senideei ere ezer esan gabe.

Ugalkortasunari buruzko datuak bat datoz Eusko Jaurlaritzako Eustatek emandakoekin: 2009. urtekoen arabera, borondatez etendako haurdunaldien tasa 9.6 izan zen 15-19 adin-tartean; horrek esan nahi du mila emakumeetatik, ia hamarrek eten zutela beren borondatez haurdunaldia.

### 2.2.3.5.- Alkohola eta beste substantzien erabilera sexu-portaerarekin lotuta

Sexu-jardueran, arriskua alkoholaren eta beste substantzien erabilerarekin lotzen da. Parte-hartzaileei ez zitzaion galdetu oro har edaten edo bestelako substantziarik erabiltzen ote zituzten, baizik eta sexu-harremana errazteko horiek baliatzen ote zituzten. 27. taulak eskuratutako datuak erakusten ditu. Bertan ikus dezakegunaren arabera, gizonezkoen % 73,7 ez dira inoiz alkoholaz lagundu sexu-harremanak izateko; emakumeen kasuan, aldiz, portzentajea % 42,6 da. Gizonen % 22,9k eta emakumeen % 54,8k noiz edo noiz erabiltzen dutela adierazi zuten. Askotan eta beti erabiltzen dutenen kopurua oso txikia da.

27. taula:- alkoholaren erabilera								
	Ez, inoiz ez.		Noizbait		Askotan		Beti	
	N	%	N	%	N	%	N	%
Gizonezkoak	216	73,7	67	22,9	7	2,4	3	1,0
Emakumezkoak	129	42,6	166	54,8	7	2,3	1	0,3
Beste substantzien erabilera								
Gizonezkoak	247	84,9	33	11,3	6	2,1	5	1,7
Emakumezkoak	234	76,0	63	20,5	10	3,2	1	0,3

Beste substantzia batzuk erabili izanaren proportzioa alkoholarena baino txikiagoa da, eta emakumeen nahiz gizonen kasuan, handiagoa da erabiltzen ez dutenen ehuneko erabiltzen dutenena baino.

Emandako datuen artean, azpimarratzekoa da izandako sexu-harremanak errazteko noizbait alkohola baliagarri izan zaien emakumeen proportzioa gizonekin alderatuta. Joera hori beste substantzien erabileran ere antzeman dezakegu. Emakumeen zein gizonen artean, oso txikia da alkoholaren eta beste substantzien gehiegizko erabileratzat har genezakeena; hau da, askotan eta beti kategorien ehunekoak. Hala eta guztiz ere, horrek ez du esan nahi sexu-harremanak alkohol edo beste substantziarik gabe izaten direla, aisialdi eta gaueko testuinguruetatik ezin bereizizkoak direla baitirudi.

Ezin izan dugu alkoholaren eta beste substantzien erabilera horiei berezkoak zaizkien arriskuen efektuekin lotu, hala nola nahi gabeko haurduntzekin, abortuekin edo hurrengo eguneko pilularen erabilerarekin. Horrek ez du esan nahi lotura errealitatean existitzen ez denik, datuok lotura hori antzematerik ez dutela izan baizik. Alkoholaren eta beste substantzien erabilerarekin erlazionatutako erantzunak dira, beharbada, fidagarritasun-maila txikiena dutenak, desiragarritasun sozialaren eragina edo erantzuten duenaren kontzientziarik eza direla medio. Adibide bat

jartzearren, gehiegizko abiaduran doan norbaitek istripu bat izateko arrisku handiagoa duela ohartzeko kontzientziarik ez izatea bezalakoa da.

#### 2.2.4.- Historia afektiboa

Jarraian ikerketa honetan parte hartu dutenen historia afektiboa analizatuko dugu. Horretarako, egungo bikote-harremanak aztertu genituen. Ondoren, maitemintzearen esperientziaren inguruko ikerketa egin genuen ikuspegi orokorra eta egungo egoera oinarri hartuta. Horrez gain, bikote-konpromisoaren, maitasunaren eta sexu-esperientziaren arteko harremana aztertu genuen.

28. taulak bikotekidea duten emakumezkoen proportzioa gizonezkoena baino handiagoa dela erakusten du; % 38,1 lehenek eta % 27,1 bigarrenek. Bikotekiderik gabeko gizonezkoen proportzioak (% 72,9), aldiz, emakumezkoena gainditzen du (% 61,9).

<b>28. taula:- egun, bikotekide egonkorra duzu?</b>				
	<b>Gizonezkoak</b>		<b>Emakumezkoak</b>	
	<b>N</b>	<b>%</b>	<b>N</b>	<b>%</b>
<b>Bai</b>	280	27,1	327	38,1
<b>Ez</b>	755	72,9	532	61,9

29. taulak hezkuntza-mailetan izandako parekatzearen bilakaera erakusten digu. Bertan ikus dezakegu mailetan zenbat eta gorago joan, hau da, zenbat eta adin handiagoa izan, orduan eta handiagoa dela bikoteen kopurua. Azpimarratu behar da bikotekidea dutela esan duten emakumeen proportzioa handiagoa dela maila guztietan gizonena baino. Bikoteen gorakada garapen sozioafektiboaren logikari zor zaio. Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko diferentziak, ordea, azalpen konplexuagoa eskatzen du. Lehenik eta behin, bion arteko garapenaren arteko diferentziaren arrazoietako bat emakumeak gizonak baino lehenago heltzen direla izan daiteke. Emakumeek bikotekide helduagoak izan ohi dituzte. Garapenaren desegokitasun hori nerabezaroaren amaieran orekatuko litzateke. Baina beste era batera ere interpreta dezakegu: bikote egonkorraren kontzeptua adin horietan aski subjektiboa izan daitekeenez, emakumeek eta gizonek bikote-harremanen pertzepzio ezberdina izan dezakete; hala, emakumeentzat egonkorra den harremana ez du zertan hala izan gizonentzat. Arrazoiak hezkuntza diferentzian ematen den emakumeen eta gizonen arteko genero-erabakien desberdintasunean egon daiteke.

29. taula:- bikotekide egonkorra, ikasketa-mailen arabera.				
	Bai		Ez	
<b>DBH</b>				
<b>Gizonezkoak</b>	105	24,3	327	75,7
<b>Emakumezkoak</b>	109	30,3	251	69,7
<b>Batxilergoa</b>				
<b>Gizonezkoak</b>	113	24,8	342	75,2
<b>Emakumezkoak</b>	158	39,3	244	60,7
<b>Erdi-mailako heziketa-zikloa</b>				
<b>Gizonezkoak</b>	26	43,3	34	56,7
<b>Emakumezkoak</b>	32	56,1	25	43,9
<b>Goi-mailako heziketa-zikloak</b>				
<b>Gizonezkoak</b>	36	40,9	52	59,1
<b>Emakumezkoak</b>	28	70,0	12	30,0

Lagina bere osotasunean hartuta, % 18,3k diote inoiz ez dutela bikoterik izan, % 20,8k bakarra izan dutela, % 21ek bi, % 13k hiru eta % 26k hiru bikotekide baino gehiago izan dituztela.

Lagineko emakumeei dagokienez, batez beste 2.8 bikote izan dituzte bizitzan zehar, eta gizonek, berriz, 3.9. Aurkitutako diferentziok estatistikoki esanguratsuak dira ( $t= 6.65$   $p<.001$ ).

Baliteke adieraztea gizonezkoentzat bikotekide bat dela beraiekin sexu-harremanak izan dituen, eta emakumezkoentzat, aldiz, beraiekin konprometitu sentitu den pertsona.

Ondoren, maitemintzearen esperientzia aztertu genuen. Horretarako, noizbait maitemindu ote ziren, eta une horretan maiteminduta ote zeuden galdetu zitzairen. Maitemindua sentitzea etengabe buruan duzun norbaitek «zoratzeari», «liluratzeari» zela zehaztu zen galderaren enuntziatuan.

30. taularen arabera, gehiengo handi bat maitemindu egin da noizbait, % 85,5 emakumezkoen kasuan eta % 88,7 gizonezkoen kasuan. Egun maiteminduta daudenen proportzioa, hala eta guztiz ere, nabarmen jaisten da: % 53,3 emakumeentzat eta % 45,6 gizonentzat.

30. taula:- inoiz maitemindu zara?				
	Bai		Ez	
<b>Gizonezkoak</b>	884	85,5	150	14,5
<b>Emakumezkoak</b>	759	88,7	97	11,3
<b>Gaur egun</b>				
	Bai		Ez	
<b>Gizonezkoak</b>	470	45,6	560	54,4
<b>Emakumezkoak</b>	455	53,4	957	50,9


Ondoren, maitasunaren eta sexu-jardueraren arteko erlazioarekiko hurbilketa bat egin zen. Horretarako, hurrengo proposamenen inguruko iritzia ematea eskatu genien:



- a) Sexu-harremanak izateko maiteminduta egotea beharrezkoa da.
- b) Nahikoa da beste pertsonak zu erotikoki erakartzea.
- c) Bikote-konpromisoa izan aurretik, hobe da sexu-esperientzia izatea.
- d) Garrantzitsuena printzipio erlijiosoak dira.

31. taula:- maitasunaren eta sexu-jardueraren arteko erlazioa								
	Sexu-harremanak izateko maiteminduta egotea beharrezkoa da.		Nahikoa da beste pertsonak zu erotikoki erakartzea.		Bikote-konpromisoa izan aurretik, hobe da sexu-esperientzia izatea.		Garrantzitsuena printzipio erlijiosoak dira.	
	N	%	N	%	N	%	N	%
Gizonezkoak	367	36,5	575	57,2	51	5,1	12	1,2
Emakumezkoak	539	63,6	281	33,1	18	2,1	10	1,2

31. taulan emakumeen eta gizonen arteko diferentzia nabarmenak ikus ditzakegu gai horren inguruan: nesken % 63,6k uste dute sexu-harremanak izateko maiteminduta egon behar dela, hori irizten dioten mutilen portzentajea, ordea, % 35,6 da. Gizonezkoen % 57,2k uste dute sexu-harremanak izateko, nahikoa dela beste pertsonak zu erotikoki erakartzea; iritzi bereko emakumezkoak % 33,1 dira. Oso gutxi uste du bikotekidea izan aurretik sexu-jardueran trebatu behar duela: % 5,1 emakumeen kasuan eta % 2,1 gizonen kasuan. Datuok erakusten duten moduan, sexu-jardueran printzipio erlijiosoek duten presentzia oso urria da (9. irudia).



**Irudia 9:-** sexu-jarduerarako baldintzak, sexuaren arabera.

### 2.2.5.- Nerabegaroko sexu-portaeraren eta osasunaren inguruan ateratako ondorioak

Zalantzarik gabe, sexu-portaeraren profiei buruzko ikerketa honetako datuen artean garrantzitsuena nerabeen sexu-harremanen kopurua da. Sexu-esperientzia koitalaren maila eta anglosaxoiek *petting* (zirriak egitea) deritzoten hori kontuan hartuta, DBHko ikasleen heren batek sexu-jarduera maila altua duela esan dezakegu; sexu-harreman koitalek % 20 baino apur bat gutxiago osatzen dute.

Bestalde, agerikoa da emakumezkoen sexu-esperientziaren maila gizonezkoena baino handiagoa dela, maila guztietan. Bilakaera hori azken urteotan azkartu egin da. Beste ikerketa batzuetatik ateratako datuek egiaztatzen dute 90eko hamarkadan gizonezkoak emakumezkoen gainetik zeudela, bai sexu-esperientzian lortutako mailan, baita maiztasunean ere. Egun, baliok alderantzikatu egin dira, eta eskolatzeko-maila guztietan, emakumeak dira buru.

Emakumeek bikote egonkorraren barruan izan ohi dituzte sexu-harremanak, nerabegaroko egonkortasunaren kontzeptua erlatibizatuz betiere. Gizonek, aldiz, egoeraren arabera harremanak izateko joera dute; hau da, noizbehinkako bikotekideekin izaten dituzte.

Urteetan zehar aldatzen ez den alderdietako bat sexu-harremanetan hasteko arrazoiak da. Emakumeek diote maiteminak eraginda dela, eta gizonek, berriz, esperimintatze hutsak. Datu horrek zenbait ikerketek proposatutako hipotesiak babesten ditu; alegia, sexu-jarduera norbera sendotzearen edota atxikimendu-beharren baitan jar daitekeela defendatzen duten hipotesiak. Genero-ikuspegitik, gizonezkoak lehenengoarekin eta emakumezkoak bigarrenarekin lotuko

lirateke, genero-rol tradizionalak sortzen dituen hezkuntza patriarkalaren efektu gisa. Hala ere, atxikimenduaren ikuspegitik, desira erotikoa –sexu-portaeretan adierazten dena– norbera sendotzeko edo lotura afektiboko beharren baitan jartzea atxikimendu-estiloetan adierazitako barne-ereduek baldintzatuko lukete. Zuhurrena, dudarik gabe, diferentziok azal ditzaketen faktore guztiak kontuan hartzea da, dogmatismoak saihestuz eta ikerketa bultzatuz.

Lortutako emaitzetan oinarrituta, ezin da ondorioztatu euskal gazteen eta nerabeen sexu-portaera ezohikoa, gehiegizkoa edo ohikotasunetik kanpokoa denik, ez gehiegizkoa ez gutxiegi delako. Aitzitik, lortutako datuek sexu-portaeraren inguruko ezagutza objektibatzen dute, sexu-jarduera nerabeen benetako garapenarekin bat datorrela jabetzeko aukera ematen digute, eta horren inguruko baieztapen interesatuak –sexua nerabeengan kontrolik gabeko errealitate gisa aurkezten dutenak– ezeztatu egiten dituzte.

Kontsumo-gizarteak etengabe manipulatu du sexua, komunikabideek tratamendu oro har morbosoa ematen diote, hainbat ideologiatatik erabiltzen da, eta normalean gaizki tratatu, desitxuratu, handizkatu egiten da eta ez da ulertzen.

Oro har, euskal nerabeek sexu-jarduera eta horrekin lotutako sentimenduak modu osasungarrian txertatzen dituzte. Hori ez da eragozpena datu horiekin, nahi gabeko haurduntzen tasak, amatasun goiztiarrak eta sexu-transmisiozko infekzioak ziur aski azaldu ahal izango dituzten arrisku-faktore batzuk antzemateko, alde batera utzi gabe, betiere, bortxazko edo indarkeriazko sexu-esperientzien ondoriozko esperientzia txarrei lotutako arrisku psikologikoak.

Agerian uzten dute, era berean, sexu-hezkuntzaren inguruko planteamenduak eguneratu behar direla, nerabeek arlo horretan dituzten benetako beharretara egokituz. Helburua sexualitatearen eta afektibotasunaren esparruan eskumenak eskuratzea sustatzea da. Hau da, DBH bukatutakoan nerabeek euren behar afektiboak eta sexualak kudeatzeko behar adina baliabide izatea.

Osasunaren ikuspegitik, behin eta berriz errepikatuko dugu gazte eta nerabe gehienek era normalizatu eta arduratsuan izaten dutela lehenengo sexu-esperientzia. 2005eko datuekin alderatuta, preserbatiboa maizago eta hobeto erabiltzeko joera dagoela jabetu gaitzke. Hala ere, larrialdiko kontrazepzioaren erabilera nahiko zabaldua dago; sexualki aktiboak diren % 37k erabili dute.

Preserbatiboak bi funtzio betetzen dituela egiaztatu dugu: a) STletatik babestea, b) haurdunaldiak ekiditea. Litekeena da preserbatiboa erabiltzeko presioak itzal egitea haurdunaldiak kontrolatzeko auzia seriotasunez planteatu beharri, eta horrek beste metodo antikonzeptiboaren erabilera hain baxua azalduko luke.

Gehienek sexu-esperientziak era arduratsuan izaten dituztela defendatzen dugun arren, datuok erakusten dute badagoela garrantzitsua baina aztertzen zaila den arrisku-alderdi bat.

Eustatek eta Gazteriaren Institutuak emandako datuekin alderatuz gero, nahi gabeko haurduntzen eta abortuen tasak egonkor mantentzen dira. Alabaina, horrek ez du esan nahi arrisku egoerak gutxitzen direnik, baizik eta larrialdiko kontrazepzioaren erabilera baliabide gisa finkatzen ari dela. Datuok are adierazgarriagoak dira preserbatiboaren eta larrialdiko kontrazepzioaren erabilerak erkatzen ditugunean.

Alkohola eta beste substantzia batzuk baliatzeari dagokionez, ez dugu horien eta sexu-portaerari lotzen zaizkion arriskuen ondorioen arteko kausa-efektu harremanik aurkitu. Ez dugu uste ondoriook izan dituzten pertsonen eta sexu-jardueran laguntzeko alkohola edo beste substantzia batzuen erabiltzaileen arteko diferentziak aipagarriak direnik. Deigarria iruditu zaigu, ordea, emakumezkoak izatea substantziok erabiltzeko joera handiagoa dutenak. Substantzien erabileraren inguruko aurreko ikerketen arabera, badirudi gizonezkoekin konparatuta, harremanetan hasteko adina eta harreman horien maiztasuna aurreratzen ari direla emakumeak.

Ikuspegi afektiboemozionalaren ikuspegitik, paradoxiko samarra da emakumezkoen azken urteotako bilakaera gizonezkoekin konparatuta. Duela bi hamarkada, emakumezkoen sexu-jarduera gizonezkoen mende zegoen, bigarren mailan. Gizonek izan behar zuten inizatiba, emakumezkoen sexu-portaera gainditzen zuten kuantitatiboki, lehenago hasten ziren eta maiztasun handiagoz praktikatzen zuten. Egun, ordea, joera hori alderantzikatu egin dela esan dezakegu. Alkohola, tabakoa eta beste substantzien erabilerarekin lotutako alderdietan ere, badirudi emakumeek aurrea hartu dietela gizonei, hasteko adinari zein maiztasunari dagokienez. Antza, berdintasuna lortzeko ezin geldituzko bidean, gizonezko gisa hartutako balioak imitatzeke efektua ari da gertatzen.

Hala ere, ikuspegi afektiboemozionaletik aztertuta, plazer erotikoa maitasunaren adierazpen gisa edo nolabaiteko maitasun-konpromiso baten barruan esperimendatzeko, emakumezkoen joera, gizonezkoena ez bezala, ez omen doa beste aldaketa psikosoziokulturalen bilakaeraren ildo beretik. Espero zitekeena da, gizonezkoen kasuan bezala, sexuaren eta maitasunaren arteko nolabaiteko disoziazioa gertatzea, baina ez dirudi hala denik. Azken hogeitau urteotan egin diren ikerketa garrantzitsuenen azterketak uste hori berresten du. Datuoi jarraiki, badirudi sexu-hezkuntzak gaitasunak garatu beharko lituzkeela emakume zein gizonezkoek beren desira erotikoa eta lotura erotikoren dimentsioak autonomia pertsonaletik abiatuta kudeatu ahal izateko.

Osasuntsu egotea gaixotasunik ez izatea dela defendatzen duen ikusmoldeak izan behar du sexualitatearekin lotutako arriskuen prebentzioaren abiapuntua; hartara, esku-hartzeak arrisku jarrerak ekiditera bideratuko dira. Hala ere, ikuspegi biografikoak defendatzen du arriskuak hartu behar direla dimentsio erotikoa eta afektiboak —sexu-portaeretan adierazten dena— nortasunaren integrazioari dagokionez duen esanahiaren esparruan, hau da biografia pertsonalaren bidez garatzen den norberaren identitatearen integrazioa.

Ikuspegi horrek, osasun fisikoarekin lotutako arriskuak hartzeaz gain, esperientzia afektibosexualarekin lotutako arriskuak ere barne hartzen ditu. Alegia, hasierako esperientzia txarrekin, begirunerik ezak, erasoek, otzantasunak, eta abarrek eragindako efektuak.

Hori dela-eta, osasunaren ikuspegitik, helburu nagusiak ez du izan behar ikasleei besteak beste antisorgailuak edo preserbatiboak erabiltzen irakastea (horien garrantzia gutxiagotu gabe, betiere). Xedea euren behar afektiboak eta erotikoa kudeatzeko behar dituzten baliabideak ematea izan behar da.

Hala, arreta sexu-esperientziaren kalitatea sustatzen jarri beharko litzateke, bizitza sexuala antolatzeke bakoitzaren askatasuna errespetatuz beti. Era horretan, besteak beste, prebentzio-metodoak —preserbatiboa kasu— eta arriskurik gabeko sexu-portaerak integratzeke baliabideak.

## 2.3.- Esperientzia erotikoa eragina duten bitartekari afektiboak, sexu-portaera osasungarrien eta arriskutsuen arabera

### 2.3.1.- Helburuak eta lan-hipotesiak

Ikerketaren atal honen funtsezko helburua ez da sexu-portaerak deskribatzea, arrisku-portaerak azaltzen saiatzea baino. Hamarkadetan zehar, sexu-portaerarekin lotutako arrisku-portaeren kasua arriskurik gabeko jokabideen inguruko ezagutza falta dela baieztatu izan da; hots, sexu seguruko teknikak deitzen zaien ezagutzarik eza, preserbatiboen eta gainerako metodo antikontzeptiboenak kasu. Hala ere, aurrez aipatu bezala, «ezagutzak» aldagaiak ez du arriskua iragartzen.

Hori dela-eta, ikerketa honetan arriskuarekiko prestasunean «bitartekari afektiboemozional» gisa hartutako aldagaiak aztertu nahi izan ditugu. Horretarako, aldagai hauek hartu genituen: arriskuarekiko prestasuna, atxikimendu-estiloak, amarekiko atxikimendua, aitarekiko atxikimendua, kideekiko atxikimendua eta emozioen erregulazioa.

Hipotesi nagusiak defendatzen du atxikimenduaren segurtasuna, dimentsiotan —estutasuna, saihestea— eta kategoriatan —seguruak, estutuak, saihesle beldurtiak eta saihesle absenteak— adierazten dena, sexu-portaerari lotutako arriskuekiko babes-faktorea dela.

Gainera, emozioak identifikatu eta erregulatzeko zailtasunak arrisku-faktore izango dira sexu-portaerarekin erlazionatzen diren arriskuekiko.

Aztertutako aldagaien arteko loturetan sexuen araberako diferentziak egongo direla aurreikusitako dugu.

### 2.3.2.- Metodologia

#### 2.3.2.1.- Tresnak:

Aurreikusitako aldagaiak aztertzeko, eskala hauek erabili ziren:

a) Emozioen erregulazioak dituen zailtasunak baloratzeko Emozioak erregulatzeko zailtasunak (Difficulties en emotion regulation, Gratz eta Roemer, 2004) izeneko eskala erabili zen, Newman-ek, van Lier-ek, Gratz-ek eta Koot-ek 2010ean nerabeentzat egokitutakoa. Hona hemen baliatu genituen azpieskalak: Emozioak azaltzeko zailtasuna (adibidez, «nire sentimenduak ulertzeko zailtasunak ditut»); Emozioak ez onartzea (adibidez, «emozionalki hunkituta nagoenean, nire buruarekin haserretzen naiz, horrela sentitzeagatik»); Erantzun emozionalak kontrolatzeko zailtasunak (adibidez, «emozionalki hunkituta nagoenean, ezinezkoa zait nire jokabidea

kontrolatzea»);Erregulazio-estrategia gutxi(adibidez, «emozionalki hunkituta nagoenean, ezerk ez dit hobeto sentiarazten»).

b) Atxikimendu-estiloak ebaluatzeko Feeney, Noller eta Hanrahan-en eskala (1994) erabili zen, estutasuna eta saihestea neurtzeko eskala bat duena. Estutasunaren adibide bat «uste dut nik nahiko nukeen lotura-maila ez dutela lortu nahi besteek» izan daiteke, eta saihestearena, berriz «kezkatzen nau jendeak nirekin gehiegi intimatzerira iritsi nahi izateak».

c) Ikasleek amarekiko, aitarekiko eta kidekoekiko gaur egun duten atxikimenduaren segurtasuna baloratzeko Armsden eta Greenberg-ek 2009an egindako IPPA galdetegia erabili dugu.Harreman afektiboei dagokienez, eskala horrek hiru dimentsio ditu: Konfiantza(adibidez, «Nire amak naizen bezala onartzen nau»);Komunikazioa (adibidez, «Nire amak neure burua hobeto ulertzen laguntzen dit»);Alienazioa(adibidez, «Amarekin nire arazoez mintzatzen banaiz, lotsatu eta barregarri sentitzen naiz»).

d) Arriskuarekiko prestasuna ebaluatzeko, Gómez-Zapiainek 2005ean egindako «Nerabeen eta gazteen sexu-portaeran arrisku/babes elementuak baloratzeko eskala» baliatu genuen.Zortzi balorazio-itemez osatuta dago, besteak beste: «Noizbehinkako sexu-harreman batean preserbatiborik izan ez dudanean, koitora arte jarraitu naiz» eta «sexu-harremanak ditudanean, inoiz ez dut arriskueta pentsatzen». Bi bertsio ditu; bat sexualki aktiboak diren pertsonentzat eta bestea sexualki aktiboak ez direnentzat.

### 2.3.3.- Emaidzak

#### *2.3.3.1.- Arriskuarekiko prestasunaren analisisia*

Sexu-portaerarekin lotutako arriskuarekiko prestasuna arriskuari dagozkion jokabide sexualak izateko joera neurtzen duen aldagaia da. Aldagaiaren osagaiak hautemandako autoeraginkortasuna, kontrol-lekunea eta enpatia dira. Aldagai horrek hainbat portaera izateko probabilitatea neurtu nahi du, hala nola sexu-harreman koitalen maiztasuna eta babes-neurrien erabilera. Arriskuarekiko prestasuna oraindik sexualki aktiboak ez diren pertsonengan neurtzen bada, itemak egoera hipotetikoak izango dira, adibidez: «Sexu-harreman batean, oso eszitatua egon arren preserbatiborik edukiko ez bazenu, koitora arte jarraituko zenuke?» Sexualki aktiboak diren pertsonak aztertzen direnean, berriz, itemak portaera errealei buruzkoak dira.

Prebentzioaren ikuspegitik, oso interesgarria da arriskuarekiko prestasuna aztertzea sexualki aktiboak ez diren nerabeengan, bai eta horren bilakaera ikertzea aktibo izatera iristen direnen artean ere. Horrekin lotuta, galdera hauek egin ditugu:

- a) Arriskuarekiko prestasunean, sexuaren araberako diferentziak daude?
- b) Ba al dago arriskuarekiko prestasunaren neurketaren eta benetako arrisku jokabideen arteko loturaren inguruko ebidentzia empirikorik?

- c) Zeintzuk dira arriskuarekiko prestasuna iragar dezaketen faktoreak?
- d) Zer ekarpen egin ditzakegu sexu-portaera osasungarriak sustatzeko sexu-hezkuntzaren bidez?

Lehenengo galderari dagokionez, datuok sexuen eta sexu-jardueren araberako diferentziak daudela erakusten dute. Sexualki aktiboak ez diren nerabeen taldean, gizonezkoek arriskuarekiko prestasun handiagoa dute ( $\mu = 21.49$ ) emakumeak baino ( $\mu = 17.21$ ) ( $t = 11.82$   $p < ,001$ ). Hala ere, sexualki aktiboak diren taldean ez ditugu diferentziok antzeman.

Bigarren galderari dagokionez, datuok arriskuarekiko prestasuna arrisku-portaera esplizituekin lotzen dela egiaztatzen dute (32. taula). Horien bidez, frogatu egin da arriskuarekiko prestasun handiagoa duten pertsona sexualki aktiboak axolagabeagoak direla, batetik, preserbatiboen erabileran eta horren maiztasunean (emakumeak eta gizonak), eta, bestetik, larrialdiko kontrazepzioaren erabileran (emakumeak bakarrik). Efektu hori azal dezakeen hipotesi bat da sexu-esperientzia zuzenak errealitate-zentzua ematen duela, itxaropenak eta arriskuaren pertzepzioa egokituz. Aipatu behar dugu emakumezkoen eta gizonezkoen arteko aldeak ezabatu egiten direla sexu-jardueran hasi ondoren.

Illo horretan, 32. taulak erakusten duen moduan eta emakumei zein gizonei dagokienez, preserbatiboa erabiltzen ez duten pertsonak arriskuarekiko prestasun handiagoa dute erabiltzen dutenek baino. Gainera, preserbatiboa erabiltzen omen duten pertsonak aztertu ondoren, aurkitu dugu koitoa gertatzen den aldioro, hots, koitoaren % 100eko maiztasunean erabiltzen duten pertsonak preserbatiboa beti erabiltzen ez dutenek baino arriskuarekiko prestasun apur bat txikiagoa dutela.

Emakumeen artean, metodo antikonzeptiborik baliatzen ez dutenen arriskuarekiko prestasuna baliatzen dutenena baino handiagoa da; estatistikoki begiratuta, diferentzia esanguratsua da.

Gauza bera gertatzen da larrialdiko kontrazepzioaren erabilerarekin. Noizbait hori baliatu duten emakumeen arriskuarekiko prestasunaren batez bestekoa ( $\mu = 21.76$ ) nabarmen handiagoa da inoiz erabili ez duten emakumeena baino ( $\mu = 18.88$ ); aldi berean, hurrengo eguneko pilula maiztasun handiagoz hartu duten emakumeen batez bestekoa behin besterik erabili ez dutenena baino askoz handiagoa da.

32. taula:- arrisku-portaerekin lotutako arriskuarekiko prestasuna							
	Bai		Ez				
	N	%	N	%	t	Esan.	
Presebatiboaren erabilera (emakumezkoak)	208	18,75	63	23,5	-5,12	,001	
Presebatiboaren erabilera (gizonezkoak)	122	24,60	142	16,01	12,82	,001	
Bestelako metodoak (emakumezkoak)	219	19,41	47	22,21	2,5	,001	
Larrialdiko kontraepizioaren erabilera	103	21,76	169	18,88	3,43	,001	
	Ez beti		Beti				
Presebatiboaren erabileraren maiztasuna emakumezkoen* artean	52	24,65	105	15,73	9,91	,001	
Presebatiboaren erabileraren maiztasuna gizonezkoen artean	122	24,60	144	16,01	12,74	,001	

\*Emakume-talde horretan ez dira sartu bikote egonkorra izatearen ondorioz, presebatiboa ez beste metodo antikonzeptiboa erabiltzen duten emakumeak.

Hirugarren galderak arriskuarekiko prestasunaren iragarle gisa jotzen diren aldagaiak zalantzan jartzen ditu. Hamarkadetan zehar, arriskuarekiko jokabideak izateko prestasunaren oinarria ezagutza falta dela uste izan da.

Uste hori mantendu egin da osasunaren esparruan, eta ezagutzen transmisioan oinarritutako hainbat esku-hartze diseinatu dira hortik abiatuta. Eraginkortasunaren ikuspegitik, gaur egun uste da «ezagutzak» aldagaiak ezin duela arriskua iragarri. Hortaz, esango dugu, arriskuari dagokionez, ezagutza beharrezko aldagaia dela, baina ez nahikoa.

Horregatik, ikerketa honetan sexu-portaera osasungarrietan bitartekari afektibotzat har daitezkeen beste aldagai batzuk aztertu dira; atxikimendua, enpatia eta emozioen erregulazioa kasu.

Ikerketa azpimarragarriek —lotura afektiboaren esparru teorikoan duela gutxi egindakoak— defendatzen duten moduan, esperientzia erotikari dagokionez, garrantzi handien duen bitartekari afektiboetako bat atxikimendua da.


Teoria horri jarraiki, haurren jokabide-sistemen eta bere atxikimendu-figurak diren ama, aita edo horien funtzioak betetzen dituen pertsonaren eta pertsona garrantzitsuen arteko elkarrekintzek barne-ereduak (barne-eredu eraginkorrak) sortzen dituzte garapen sozioafektiboan zehar, eta jaiotzatik bertatik. Horiek pertsona arteko harremanak eta, bereziki, hurbiltasun psikologikokoak eta intimitatearekin lotutakoak erregulatzen dituzte.

Barne-ereduak hainbat modutan adierazten dira. Oinarrizkoenaren funtsa da oinarrizko segurtasuna baloratzea «niaren» egiturari dagokionez. Lehenengo hurbilketan, pertsonak seguruak edo dudatsuak izan daitezke. Hau da, oinarrizko segurtasuna funtsezko iragarletzat jotzen da egonkortasun emozionalaren kasuan, eta subjektuei beren interesekiko egokiak diren erabakiak hartzea ahalbidetzen die; testuinguru horretan, interesok jokabide osasungarriekin erlazionatutako testuinguru pertsonalari eta sozialari dagozkie.

Bigarren hurbilketan, dudatsuak diren pertsonak estutasuna izan dezakete abandonatuak izateko beldurraren erreakzio gisa, edo saihestea, abandonatze horretatik babesteko modu gisa. Ikerketa



enpirikoaren esparruan bi aldagai daude, estutasuna eta saihestea. Horiek subjektu guztietan agertzen dira, neurri handiagoan zein txikiagoan. Horien arteko erlazio ortogonalak lau kategoria sortzen ditu: seguruak, estu-anbibalenteak, saihesle beldurtiak eta saihesle absenteak. Kategorioek atxikimendu-estiloak osatzen dituzte (ikus 10. figura).



Iturria: Mikulincer, M. y Shaver, P. R. (2007). *Attachment in adulthood*. New York: The Guildford Press.

### Irudia 10:- atxikimendu-dimentsioak eta kategoriak.

Atxikimendu-estiloen eta sexu-harremanetako arriskuaren arteko erlazioa honetan datza: desira erotikoa, aktibazio psikobiologikoan oinarri duen emozio konplexutzat hartuta, ekintzarako jokabidearen joera sortzen du (asetze erotikoa bilaketa) eta bestearekin elkartera bultzatzen du gizabanakoa Hurbiltasun psikologikoak atxikimendu-estiloetan adierazten diren barne-ereduak aktibatzen ditu. Subjektuen banako ezaugarriak nolakoak —garapenean zehar izandako lotura afektiboaren kalitatearen mende egongo direnak— halakoa izango da behar afektiboak zein sexualak kudeatzeko modua.

Era horretan, esan dezakegu atxikimendu-dimentsioak (nortasun-aldagaiak diren aldetik) nerabezaroan hasieratik bertatik sexu-portaerari heltzeko moduan parte hartzen duten bitartekari afektiboetako batzuk direla.

Aurreko ikerketetatik lortutako ebidentzia enpirikoen arabera, atxikimenduan segurtasuna izateak iragartzen du sexu-harremanak beranduago hasiko direla, bikotekide gutxiago izango direla, esperientziaren kalitatea hobetuz izango dela eta arriskuarekiko prestasuna murriztuko dela; segurtasunik eza (estutasuna, saihestea), aldiz, guztiz kontrakoarekin erlazionatzen da. Ondorioz, bitartekari afektiboaren eraginean, sexu-osasunaren sustapenean eta horrek sexu-hezkuntzan dituen eraginetan sakontzeko interesa ikusita, atxikimendua - sexualitatea harremana aztergai izan dugu lan honetan, eta emaitzak jarraian aurkeztu ditugu.

### 2.3.3.2.- Ikertutako aldagaiei buruzko korrelazio-ikerketak

Korrelazio-ikerketak aztertutako aldagaien arteko asoziazioen ikuspegi globala izatea ahalbidetzen du. 33. taulak jarduera sexualarekin lotutako arriskuarekiko prestasunaren eta ikerketa honetan bitartekari afektibo gisa hartutako aldagaien arteko erlazioa erakusten du. Espero genuen moduan, datuok erakusten dute lotura afektiboaren azpiko barne-ereduekin erlazionatzen diren aldagaiek iragarpen-ahalmen handia dutela.

Sexualki aktiboak diren pertsonen arteko arriskuarekiko prestasunean honako hauek aipatu behar dira: kidekoekiko atxikimenduaren (-,41\*\*) eta komunikazioaren (-,28\*\*) kutsu negatiboa eta horien alienazioaren balorazio positiboa (,38\*\*). Horrek esan nahi du segurtasun-oinarri eta babesleku (atxikimendu-figuraren funtzioak) diren adiskide garrantzitsuak dituzten pertsonen arrisku-portaerak izateko joera txikiagoa dutela. Beste era batera esanda, eta pixka bat paradoxikoa izan daitekeen arren, talde naturaletatik isolatuagoak dauden eta harreman pertsonal esanguratsuen sare ahula duten pertsonen sexu-portaera arriskutsuak izateko prestasun handiagoa dute sexu-jardueran hasteko unea iristen denean. Aurrerago azalduko ditugun azterketek interpretazio hori zehatz-mehatz berretsi egingo dute.

<b>33. taula:- aktiboak diren eta ez diren pertsonen arriskuarekiko prestasunaren eta «estutasuna eta saihestea» kategorien arteko korrelazioak, ikertutako bitartekari afektiboekin lotuta.</b>				
	Arriskuarekiko prestasuna sexualki aktiboak ez diren pertsonengan.	Arriskuarekiko prestasuna sexualki aktiboak diren pertsonengan.	Estutasuna	Saihestea
	1	2	3	4
1.- Arris. prestasuna ez aktiboak				
2.- Arris prestasuna aktiboak				
3.- Estutasuna	,21**	,12**		
4.- Saihestea	,28**	,20**	,47**	
5.- Aitarekiko atxikimendua.	-,23**	,13**	-,25**	-,24**
6.- Amarekiko atxikimendua.	-,36**	-,21**	-,28**	-,31**
7.- Kidekoekiko atxikimendua.	-,41**	-,17**	-,39**	-,45**
8.- Konfiantza aitarekin.	-,24**	-,13**	-,21**	-,22**
9.- Konfiantza amarekin.	-,32**	-,18**	-,24**	-,25**
10.- Konfiantza kidekoekin.	-,36**	-,14**	-,34**	-,39**
11.- Komunikazioa aitarekin.	-,12**	-,07	-,16**	-,18**
12.- Komunikazioa amarekin.	-,12**	-,15**	-,17**	-,25**
13.- Komunikazioa kidekoekin.	-,28**	-,17**	-,27**	-,39**
14.- Aitaren alienazioa.	,25**	,15**	,32**	,25**
15.- Amaren alienazioa.	,30**	,18**	,34**	,31**
16.- Kidekoen alienazioa.	,38**	,20**	,37**	,33**
17.- Emozioen erregulazioa.	,27**	,24**	,47**	,29**

\*\* p<,01 \* p<,05

Arriskuarekiko prestasunarekin lotutako beste aldagai garrantzitsu bat amarekiko atxikimendua da (-.36\*\*). Amarekiko lotura ona izateak arriskuarekiko prestasun txikiagoa eragiten duela diote datuok, pertsonak sexualki aktiboak izan zein ez izan. Aitaren zereginak, atxikimendu-figura den arren, ez du hainbesteko iragarpen-ahalmenik.

«Estutasuna eta saihestea» dimentsioen analitikoak lortutako datuak aintzat hartuta, konturatzen gara berretsi egiten dela berriz ere, arriskuei dagokienez, atxikimendua bitartekari afektibo oso garrantzitsua dela defendatzen duen hipotesia. Oro har, pertsona arteko harremanetan eragina duen ezegonkortasun emozionalaren faktore gisa hartu behar dugu saihestea. Nerabe saihesteek arrisku-portaerak izan ohi dituzte normalean, portaera anomikoak kasu, eta hainbat substantzia erabiltzen dituzte, alkohola eta tabakoa kasu. Datuon bidez ikus daiteke saihesteak arriskuarekiko prestasuna iragartzen duela, aktiboak (.28\*\*) nahiz ez aktiboak (.20\*\*) diren pertsonengan.

Hurbiltasun psikologikoaren emaitza gisa hartuz gero, estutasunak iragarpen-balio txikiagoa du sexualki aktiboak diren pertsonengan (.12\*\*).

Atxikimenduan segurtasunaren sorreraren erantzule den garapen sozioafektiboak garapenean zehar duen garrantziaren inguruan egindako ekarpen teorikoek erakusten dute pertsona arteko harremanen kalitatearen oinarria atxikimendu-figurekin ama, aita eta, nerabezaroan, kidekoak dituzten harremanen sendotasunean dagoela. Familiako harremanen esparruan segurtasunean, konfiantzan, berotasunean eta enpatian oinarritzen diren harreman-ereduak sortzen dira. Harreman-ereduok intimitate-harreman berrietan probatuko eta praktikan jarriko dira; horiek nerabezaroan zehar hasiko diren harreman afektibosexualak izango dira. Esparru horretako gabeziak arriskuarekiko prestasun handiagoarekin lotzen dira. Emandako datuok berretsi egiten dute aztertutako bitartekari afektiboen iragarpen-balioaren inguruko hipotesia, arriskuarekiko prestasunarekin lotuta.

Amaitzeko, arriskuarekiko prestasunarekin lotuta, erregulazio emozionalek duten garrantzia agerian uzten dute korrelazio-emaitzek. Aipatu beharra dago emozio sakonak onartzeko eta kudeatzeko gaitasuna garrantzitsuagoa dela sexu-jardueran hasi diren pertsonen artean. Sexu-esperientzia biografian txertatzearekin batera (balidin eta baldintza normaletan egiten bada, hau da, garapeneko beste zailtasunen ondoriozko portaeren emaitza ez bada), heldutasunerako pauso kualitatiboa ematen da, autonomia pertsonala handitzen baita. Sexualki aktiboak direnen eta ez direnen taldeen arteko diferentziok eboluzio hori erakutsiko lukete.

Hurrengo ataletan emaitzak xehetasun handiagoz aztertuko ditugu.

#### *2.3.3.3.- Arriskuarekiko prestasunaren eta atxikimendu-kategorien arteko harremana sexu-jarduerarekin lotuta*

Barne-ereduen ikuspegitik, atxikimendu-kategorien inguruko faktore bakarraren bariantza-analisiak adierazi zuen sexualki aktiboak ez diren pertsona seguruek (estutasun eta saiheste baxuak, ikus 10. irudia) gainerako kategoriek baino arriskuarekiko prestasun txikiagoa zutela. Scheffé-ren *post*

hoc testaren arabera, seguruak direnen taldearen eta gainerako kategorien batez bestekoen artean dauden aldeak estatistikoki garrantzitsuak dira.

<b>34. taula:- atxikimenduarekiko prestasunaren eta atxikimendu kategorien arteko bariantza-analisia</b>				
	Arriskuarekiko prestasuna <b>aktiboak ez diren</b> pertsonengan.		Arriskuarekiko prestasuna <b>aktiboak</b> diren pertsonengan.	
	N	$\bar{x}$	N	$\bar{x}$
	169	16,25	106	19,14
Estutuak	44	19,61	20	19,70
Saihesleak	42	20,21	39	20,35
Beldurtiak	195	22,05	68	20,42
	F <sub>(3, 446)</sub> = 27,009 p>,001		F <sub>(3,229)</sub> = 3,578 p<,015	


Sexualki aktiboak diren pertsonen dagokienez, beldurtiek (estutasun eta saiheste altuak) baino arriskuarekiko prestasun txikiagoa dute seguruak, eta diferentzia esanguratsua da estatistikoki begiratuta.

Aurrez egindako analisiei esker egiaztatu dugu diferentzia adierazgarriak daudela arriskuarekiko prestasunean, sexuen arabera eta atxikimendu-kategorien arabera. Hori dela-eta, aldagai bakarreko bariantza-analisia egin zen: arriskuarekiko prestasuna ezarri zen menpeko aldagai gisa, eta sexua eta atxikimendu-kategoriak aldagai aske gisa, nola sexualki aktiboak diren hala ez diren subjektu-taldeen kasuan.

<b>35. taula:- atxikimenduarekiko prestasunaren eta atxikimendu kategorien arteko bariantza-analisia</b>								
	Arriskuarekiko prestasuna aktiboak diren pertsonengan.				Arriskuarekiko prestasuna aktiboak ez diren pertsonengan.			
	Gizonezkoak		Emakumezkoak		Gizonezkoak		Emakumezkoak	
	n	$\bar{x}$	n	$\bar{x}$	n	$\bar{x}$	n	$\bar{x}$
Seguruak	46	20,13	60	18,38	78	18,62	91	14,21
Estutuak	5	16,00	15	20,93	20	19,95	24	19,33
Saihesleak	15	23,26	24	18,54	22	23,59	20	16,50
Beldurtiak	42	23,80	26	20,80	123	23,62	72	19,36


Sexualki aktiboak ez diren subjektuen taldeko emaitzei erreparatuta, diferentzia nabarmenak ikus ditzakegu sexuari dagokionez, bai estilo bakoitzaren barruan (F(1,450) = 22.48 p<.001) bai atxikimendu-estiloen artean ere (F(3,442) = 22.89 p <.001). Schefféren probaren bidez egindako batez besteko bikoteen konparazio anitzek agerian utzi zuten seguruak diren pertsonen eta gainerako atxikimendu-kategorien arteko desberdintasunak handiak direla. Aldagai askeen arteko elkarrekintza nabarmena da F(3,450) = 2.29 p<.047. Hortaz, baieztatu daiteke arriskuarekiko

prestasuna handiagoa dela aktiboak ez diren emakumeengan gizonaengana baino, atxikimendu-estiloak gorabehera.



**Irudia 11:** Sexualki aktiboak ez diren pertsonen atxikimendu-estiloak eta arriskuarekiko prestasuna, sexuen arabera.

Sexualki aktiboak diren subjektuen taldeko emaitzei erreparatuta, ez dugu diferentzia nabarmenik antzeman estilo bakoitzaren barruan ( $F(1,225) = .912$   $p < .34$ ) sexuari dagokionez; bai, ordea, atxikimendu-estiloen artean ( $F(3,225) = 3.055$   $p < .029$ ). Schefféren probaren bidez egindako batez besteko bikoteen konparazio ugariak agerian utzi zuten seguruak diren pertsonen eta beldurtien arteko desberdintasunak handiak direla. Aldagai askeen arteko elkarrekintza ez zen esanguratsua izan ( $F(3, 225) = 1.861$   $p < .137$ ). Sexualki aktiboak ez diren pertsonen kasuan ez bezala, arriskuarekiko prestasuna iragartzen duena ez da «sexua» aldagaia oraingo honetan, atxikimendu-estiloen arteko ezberdintasunak baizik.



**Irudia 12:-** sexualki aktiboak diren pertsonen atxikimendu-estiloak eta arriskuarekiko prestasuna, sexuari dagokionez.

Lortutako emaitzek iradokitzen dute sexualki aktiboak ez diren pertsonen asmatutako esperientzia erotikorekin inguruan dituzten itzaropenen arabera erantzun dutela; aktiboak direnek, ordea, benetako esperientzien arabera adierazpenak egin dituzte.

Nerabezaroan hainbat garapen-aldaketa gertatzen dira esparru psikosexual zein sozioafektiboan. Horien artean, garrantzitsuak dira norberaren identitatearen garapena (autokontzeptu eta autoestimua), eta lotura afektiboaren birdefinizioa (ama, aita, kidekoak, pertsona esanguratsuak). Testuinguru horretan, sexu-desira bere zerizanarekin bat etor daiteke, sexu-portaera partekatuetako asetzeko erotikorekin alegia, edo beste beharren zerbitzura jar daiteke, norberaren onartzea edo esperientzia erotikoa bizien bilaketa kasu.

Bestetik, genero-rolarekin erlazionatuta gertatzen diren aldaketak aintzat hartu behar dira. Emakumeei dagokienez, baliteke bat egitea, batetik, eredu sexistaren rol tradizionalaren inertzia —non desira erotikoa adierazpen afektiboemozionalarekin lotzen baita—, eta, bestetik, gizonezkoekin konparatuta dauden rol-diferentziak murriztu nahi dituen emakumearen rola.

Beharbada horrek azal dezake arriskuarekiko prestutasunean nesken eta mutilen artean dagoen aldea. Alde batetik, eta puntu honen hasieran adierazitako datu globalen inguruan, arriskuarekiko prestasunerako mutilen joera handiagoaren azalpen moduan (sexualki aktiboak ez diren taldean argi eta garbi adierazten dena) norbera onartzeko beharra eta/edo genero-rolaren probabilitatea har genezake. Sexu-esperientziak izaten hasteko moduen inguruan, bestalde, ez da sexuen arabera diferentziarik aurkitu, sexu-portaeraren analisi deskribatzaileari eskainitako atalean (ikus 2.2.2. puntua) azaldu dugun bezala. Datuok agerian uzten dute sexu-portaerari dagokionez azken hamarkadan neskek eman dituzten aurrerapausoak, mutilen sexu-esperientziaren mailara heldu eta hori gainditzera iritsi baitira.

Hori guztia kontuan hartuta, bariantza-analisiaren bidez ikus dezakegu pertsona seguruen artean gizonezkoek arriskuarekiko emakumeek baino prestasun handiagoa dutela; estutuen eta saiheleen taldeetan, ordea, balioak alderantzikatu egiten dira.

Lehenengoan, emakumeen arriskuarekiko prestasuna gizonezkoena baino handiagoa da; saiheleen taldean alderantziz gertatzen da.

Azalpen posible bat honetan oinarrituko litzateke: Gizonezko estutuek harremanen intimitate-gunearen aurreko defentsa moduan erabiliko lukete sexu-portaera, psikologikoki arriskutsua dena abandonatua izateko pertzepzio subjektiboari dagokionez. Talde horretako emakumeek, aldiz, euren segurtasunik eza ikusita, gehiago arriskatuko lukete sexu-harremanetan, nahi duten lotura afektiboak gogo biziz lortze aldera.

Saiheleen taldearen ezaugarriak estutasun baxua eta saiheste handia dira, eta defentsa moduan atxikimenduaren desaktibazioa erabiltzen dute; bertan, gizonezkoek arriskuarekiko prestasun handiagoa dute, saihelearen autosufizientziaren pertzepzioak abandonatua izateko beldurra uxatzen baitu, sexu-desiran eraginik izan gabe.

Emakume saihesleen esperientzia erotikoa ez du emozionalki lotuta egoteko beharrak eragiten, arrisku-prestutasunarekiko errealistagoak baitira.

Hala ere, nahiz eta arriskuarekiko prestutasunean sexuen arabera aldea egon, atxikimenduaren segurtasunarekin lotuta hura murriztu egiten da; hala, normalean seguruak diren pertsonen —sexua gorabehera— arriskuarekiko prestutasun txikiagoa dute. Ebidentzia hori bereziki interesgarria da sexu-osasuna eta sexu-hezkuntza sustatzeko. Familiako harremanak hobetuz, besteenganako konfiantza areagotuz eta enpatia garatuz gero, arrisku-portaerak izateko prestasuna murriztuko litzateke, lehenengo sexu-harreman partekatuak izan baino lehen ere.

Sexualki aktiboak diren pertsonen taldean, intimitateari berezkoa zaion hurbiltasun psikologikoarekin lotutako esperientzia afektiboak iragazten du sexu-esperientzia. Horregatik, arriskuarekiko prestasuna, sexuek baino gehiago, atxikimendu-estiloek baldintzatzen dute.

#### *2.3.3.4.- Ikertutako aldagaien iragarpen-balioa*

Adierazi den moduan, atxikimenduaren edota esperientzia sexualaren mailaren baitan aldatu egiten da arriskuarekiko prestasuna. Aurreko analisiak atxikimendu-estiloetan adierazten diren barne-ereduen zereginaren inguruko datuak eman ditu, sexu-jardueraren arabera arriskuarekiko prestasunarekin lotuta. Desira erotikoa, gainerako emozioak bezala, erregula daitekeen emozioa da. Egindako galdera hauze izan zen: hasierako adin horietan, arriskuarekiko prestasuna atxikimenduaren bitartekaritzaren edo emozioak erregulatzeko gaitasunaren baitan al dago? Horri erantzuteko, analisi diskriminatzaile bat egin zen, jakiteko aztertutako aldagaietako zeintzuek zuten iragarpen-gaitasun handiagoa arriskuarekiko prestasunari dagokionez. Bertan aldagai hauek hartu ziren barne: a) atxikimendurekin erlazionatuta, estutasuna eta saihestea, amarekiko atxikimendua, aitarekiko atxikimendua, kidekoekiko atxikimendua; b) erregulazio emozionala. Azken aldagai horrek aktibazio emozionaleko egoerak antzemateko eta kudeatzeko gaitasuna neurtzen du modu globalean. Hauek dira eskuratutako emaitzak:

Sexualki aktiboak ez diren pertsonen taldean, funtzio diskriminatzailearen Wilks-en Lambda-ren balioidea .742 izan zen, eta  $\chi^2=164.675$ . Arriskuarekiko prestasun handiko eta txikiko taldeekin funtzioak izan zuen korrelazioa .51 ( $p<.001$ ) izan zen.

Sexualki aktiboak diren pertsonen taldean, funtzio diskriminatzailearen Wilks-en Lambdaren indizea .859 izan zen, eta  $\chi^2=39.997$ . Arriskuarekiko prestasun handieneko eta txikieneko taldeekin funtzioak izan zuen korrelazioa .376 ( $p<.001$ ) izan zen.

**36. taula:- sexu-esperientzian arrisku-portaerak izateko prestasun handia eta txikia duten pertsonak hobekien bereizten dituzten aldagaiak, sexualki aktiboak diren eta ez diren pertsonen dagokienez**

Ez aktiboak		Aktiboak	
Kidekoekiko atxikimendua	-,820	Emozioen erregulazioa	,770
Amarekiko atxikimendua	,761	Amarekiko atxikimendua	-,702
Saihestea	-,562	Saihestea	,636
Emozioen erregulazioa	,540	Kidekoekiko atxikimendua	-,623
Aitarekiko atxikimendua	,448	Estutasuna	,468
Estutasuna	-,414	Aitarekiko atxikimendua	-,407

35. taulan ikus daitekeen moduan, sexualki aktiboak ez diren pertsonen taldean arriskuarekiko prestasun txiki eta handiko pertsonak hobekien bereizten dituen aldagaia kidekoekiko atxikimendua da. Hau da, kidekoekin duten konfiantza, hurbiltasuna eta taldeko integrazioa arriskuarekiko prestasunarekin erlazionatzen dira, amarekiko atxikimendua ere gaindituz. Edonola ere, aipatutako atxikimenduak zeregin oso garrantzitsua du aktiboak zein ez aktiboak diren pertsonengan, arriskuari dagokionez. Bestalde, saihestea -besteekin emozionalki konektatzeko zailtasuna- ahalmen bereizle handiena duen hirugarren aldagaia da.

Sexualki aktiboak diren pertsonen taldean, arriskuarekiko prestasun handia eta txikia hobekien bereizi zituen aldagaia —funtzio diskriminatzailearekiko zuen korrelazioaren arabera— erregulazio emozionala izan zen, bigarrena amarekiko atxikimendua, eta hirugarrena, saihestea. Sexualki aktiboak diren pertsonen % 72,7 eta ez direnen % 65,5 ondo sailkatuak izan ziren.

**37. Taula:- taldeen araberako sailkapenaren emaitzak**

Sexualki aktiboak ez diren pertsonak			
Taldeak	Kasu-kopurua	Iragarritako taldea	
		Prestasun txikia	Prestasun handia
Arriskuarekiko prestasun txikia	313	229 (% 73,2)	84 (% 26,8)
Arriskuarekiko prestasun handia	147	86 (% 27,7)	224 (% 72,3)
Ondo sailkatutakoen ehunekoak= % 72,7			
Sexualki aktiboak diren pertsonak			
Taldeak	Kasu-kopurua	Iragarritako taldea	
		Prestasun txikia	Prestasun handia
Arriskuarekiko prestasun txikia	146	97 (% 66,4)	49 (% 33,6)
Arriskuarekiko prestasun handia	147	52 (% 35,4)	95 (% 64,6)
Ondo sailkatutakoen ehunekoak= % 65,5			



Analisi diskriminatzaileari esker, lotura afektiboaren kalitatearen garrantzia balioetsi dezakegu arriskuarekiko prestasunari dagokionez. Hona hemen datuetatik abiatuta egin dezakegun interpretazioa:

Nerabezaroaren lehen erdian atxikimendu-figura nagusiek betetzen dituzten funtzioak eskualdatzen dira. Horregatik, ama eta aita bigarren mailara pasa eta kidekoekin dituzten harremanek berebiziko garrantzia hartzen dute. Hori garapen ebolutiboaren logikarekin bat dator. Atxikimendu-figuren funtzio nagusiak —segurtasun-oinarri eta babesleku izatea— kidekoek bereganatzen dituzte, amarekin eta aitarekin ezarritako lotura estuak baztertu gabe.

Funtzioen eskualdatze horrek norbera heltzen laguntzen du, nerabeak bere identitatea sendotu eta autonomia pertsonala lortzen baitu taldearen barruan. Garapen psikosexualaren ikuspegitik, garapenaren beharrak direla-eta, gurasoak konfiantzazko pertsona nagusiak izateari utzi eta kidekoekin ordeztzen dira.

Lortutako datuek erakusten digute sexu-esperientzia partekatua izan aurretik, hots, hura itxaropena besterik ez denean, kidekoekin dituzten harremanen kalitatea eta nerabeen taldean duten integrazio-maila direla arriskurik gabeko sexu-jarduera modu osasungarrian izango den iragarle onenak.

Zalantzarik gabe, kidekoen arteko harremanen kalitatea garapen sozioafektiboaren ikuspegitik osasungarria den familia-testuinguruko oinarrizko segurtasunaren mende dago. Hori egiaztatu dugu ahalmen diskriminatzaile handiena duen bigarren aldagaia amarekiko atxikimendua dela ikusi ondoren. Kontuan izan sexualki aktiboak ez diren pertsonen taldean, emozioen erregulazioaren ahalmen diskriminatzailea txikia dela, sexu-harreman partekatuaren intentsitate emozionalaren esperientzia faltan dutelako, ziur aski.

Sexualki aktiboak diren pertsonen taldean, gauzak aldatu egiten dira. Psikosexualitatearen ikuspegitik, esperientzia erotikoan hasten direnean —baldintza normaletan baldin bada—, aurrerapauso kualitatibo garrantzitsua ematen dute garapen pertsonalari dagokionez. Esperientzia hori biografian txertatzean, norberaren identitatea sendotzen da «niaren» egiturari dagokionez, eta autoestimua handitzen da. Horrek guztiak autonomia pertsonal handiagoa lortzen laguntzen du.

Horregatik, litekeena da sexualki aktiboak diren pertsonen taldean, arriskuarekiko prestasun handiko eta txikiko taldeak hobekien bereizten dituen aldagaia emozioen erregulazioa izatea, hain zuzen. Talde horietan, badirudi arriskuarekiko prestasuna intentsitate emozional handiko egoeretan emozioak antzeman eta erregulatzeko ahalmenaren mende dagoela.

Hala ere, berriro azpimarratu behar dugu ahalmen diskriminatzaile handiena duen bigarren aldagaia amarekiko atxikimendua dela. Gogoratu aurreko bariantza-analisan datuok adierazten zutela arriskuarekiko prestasuna atxikimenduaren kalitatearen mende zegoela, pertsona aktiboengan zein ez aktiboengan. Gainera, sexu-jarduerako taldeetan, «saihestea» aldagaia hirugarren dago ahalmen diskriminatzaileari dagokionez.

Arrisku-portaerekin lotuta, bitartekari afektiboek duten garrantzia datuok egiaztatzen dute enpirikoki, eta horiek osasunaren sustapenaren barruan sexu-hezkuntzan esku hartzeko argumentu sendoak eskaintzen dituzte.

### 3.- Sexu-hezkuntzaren egoera euskal hezkuntza-sisteman

Ikerketa honen helburua izan zen EAEren esparruan sexu-hezkuntzaren egoerarekiko hurbilketa bat egitea. Ehun eta hirurogeita bat ikastetxek parte hartu dute. Jarraian, lortutako emaitza nagusiak aurkeztu ditugu:

#### 3.1.- Metodologia

Sexu-hezkuntza euskal hezkuntza-sisteman nola irakasten zen aztertzeko online inkesta bat egin zen Encuestafacil tresnarekin. Aipatu tresna lan mota horretan gehien erabiltzen den web baliabideetako bat da. Baliabide hori erabili ahal izan genuen Encuestafacil enpresaren eta Euskal Herriko Unibertsitatea kide den Universia sarearen arteko hitzarmenari esker.

Datuen bilketarako prozedura hauxe izan zen. EHUko ikerketa-taldeak ikastetxeetako zuzendariari gutun bat bidaltzeko eskatu zion Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari, ikastetxeek azterketan parte hartzera gonbidatuz. Eskutitzean, datuak biltzeko galdetegiarekin lotzen zuen Interneteko esteka adierazi zen.


Era horretan, zuzendariak, edo eskuordetutako ikastetxeko beste profesional batek, ikastetxeko datuak horren bidez bidali zituen. Datuak jasotzeko zerbitzarian galdetegi bat erregistratu zen ikastetxe bakoitzeko.

#### 3.2.- Laginaren deskripzioa

Guztira EAEko 161 ikastetxek parte hartu dute. Euren ezaugarriak jarraian deskribatu ditugu.

##### 3.2.1.- Ikastetxe mota


Parte hartu zuten ikastetxeak honela banatzen dira: 67 (% 42) publikoak, 7 (% 4) pribatuak eta 87 (% 54) itundutakoak (10. irudia).



**Irudia 13:-** Ikastetxe-mota

### 3.2.2.- Konfesionaltasuna


Konfesionaltasunari dagokionez, 103 (% 66) laikoak ziren, eta 54 (% 34) erlijiosoak (11. irudia).



**Irudia 14:-** konfesionaltasuna.

### 3.2.3.- Lurralde historikoa

Lurralde historikoen arabera, ikastetxe parte-hartzaileak honela banatu ziren: 20 (% 13) Arabakoak, 84 (% 54) Bizkaikoak eta 52 (% 33) Gipuzkoakoak (12. irudia).




**Irudia 15:-** lurralde historikoa.

### 3.3.- Emaitzak.

#### 3.3.1.- Inkestari erantzun dioten profesionalak

Prozeduran adierazi bezala, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak mezu elektronikoko bana bidali zien ikastetxeetako zuzendariari, ikerketan parte hartzera gonbidatzeko. Horietako batzuek zuzenean erantzun zuten eta beste batzuek ikastetxeko beste profesional baten esku utzi zuten. Hauek dira euren ikastetxeko sexu-hezkuntzaren egoerari buruzko galderari erantzun dion zentroko profesionalari buruzko datuak:

60 ikastetxetan (% 39) zuzendariak erantzun zuen, 28tan (% 18) ikasketaburuak, 59tan (% 38) orientatzaileak, eta 8k (% 5) ez zuten zehaztu zein izan zen galdetegiari bete zuten pertsona (13. irudia).




**Irudia 16:-** Galdetegiari erantzun zioten profesionalak.

### 3.3.2.- Ikastetxeetan sexu-hezkuntza irakasteko modua

Datuon arabera, ikastetxeetako % 73k kanpoko profesionalak kontratatzen dituzte. Ikastetxeetako % 22k sexu-hezkuntza irakasleen ekimenaren mende dagoela baieztatzen dute. Irakaslearen ekimen gisa ulertzen da arloetako programazioan agertzen diren gaietan, sexualitatearekin lotutako edukiak dituztenak, sexu-hezkuntzako jarduerak egitea. Edukiok, normalean, zientzien arloko anatomiari eta fisiologiari egiten diete erreferentzia; beste jarduera batzuk tutoretzan egiteko dira. Edonola ere, ez dugu uste koordinatuak daudenik, ezta programazio koherente bati erantzuten diotenik ere.

«Besteak» atalean (% 19) gomendatzen dira, besteak beste, ikasleek bibliografia espezifiko arabiltzea —zehazki landu gabe—, eta gaikako bideoen proiektzioa eztabaida txiki batekin eta testuingururik gabe lantzea (14. irudia).



**Irudia 17:** Sexu-hezkuntza ematen den modua.

### 3.3.3.- Ikastetxeek kanpoko profesionalak erabiltzen dituzten ekintza-motak

Aurreko puntuan adierazi dugu ikastetxeetako % 73k kanpoko profesionalak kontratatzen dituztela sexu-hezkuntzako ekintzak aurrera eramateko. Unean uneko esku-hartzeak izaten dira; hau da, hitzaldi, ikastaro edo mintegi txikiak.


Idazpuru honen datuak galdera ireki eta kualitatibo baten bidez lortu dira. Egiatan, aldakortasun izugarria dago esku-hartze moten, ekintzen iraupenen, eskainitako orduen, metodologiaren eta irakasteko eskolatzeko-uneen artean.

Kasu soilenetan, hitzaldi txiki bat ematen da, DBHko 4. mailan, oro har; batzuetan, beste bat ematen zaie gurasoei, baina ez beti. Esku-hartzeak ugariagoak diren ikastetxeetan, mintegiak antolatzen dira; DBHn zehar sei ordu bete ditzakete.

Proposatzen dugun jarduera-motan, informazioaren transmisio hutsa diren hitzaldi klasikoak, eta hain zuzentzaileak ez diren eta partaidetza handiagoa duten beste esku-hartzeak bereizi beharko lirateke.

### 3.3.4.- Zein mailatan irakasten da?

Datuak erakusten dute gehienak DBHko 2., 3. eta 4. mailan egiten direla. Datuok apur bat zehaztugabeak dira, ikerketa honetako partaidetza boluntarioa izan delako; hori dela-eta, parte hartu duten ikastetxe guztiek ez dituzte hezkuntza-maila guztiak ematen (15. taula).



**Irudia 18:-** Sexu-hezkuntzaren irakaskuntza, mailen arabera.

### 3.3.5.- Zenbat ordu ematen dira?

Bildu ditugun datuei helduz, 6 ordu ematen dira, batez beste, DBHn zehar. Datu horren inguruan, ordea, aldakortasun handia dago. Ikastetxe gehienek diote 4 eta 8 ordu artean ematen dituztela sexu-hezkuntza lantzen. Oso zentro gutxitan ikusten da sexu-hezkuntza ikastetxeko curriculum-proiektuan benetan integratuta dagoela. Ikastetxe horietako batzuek berrogei ordu inguru ematen dituztela adierazi dute. Ordu gehien eskaintzen dituzten ikastetxeen kasuan, kanpoko taldeek emandako denbora, zenbait tutoretza eta giza sexualitatearen inguruko ezagutza ematen duten arloetako eskola-orduak sartzen dituzte kalkulu horretan.

Edonola ere, sexu-hezkuntzari eskaintako denbora eskasa izan ohi da DBHko lau mailak kontuan hartzen baditugu.

Hala ere, sexu-hezkuntzan emandako denborari buruzko datuak erlatibizatu behar dira, galdetegiari erantzun dion pertsonaren gutxi gorabeherako hautematea baita. Ez da zehatz-mehatz ebaluatutako denbora.

### 3.3.6.- Zer gai lantzen dira?


Gogoratu behar dugu 16. irudian agertzen diren ehunekoek gai guztiei erantzun dieten ikastetxeen guztizko proportzioari egiten diotela erreferentzia, ez itemen guztizkoari. Horri esker, nahikoa zehaztasunez balioets dezakegu gai bakoitzari ematen zaion garrantzia. Hala, parte hartu duten ikastetxeen % 80k baino gehiagok lantzen dituzte «antisorgailuak», «sexu-portaera» eta «sexu segurua» gaiak. Proportzio txikiagoan beste gai hauek ere lantzen dira: anatomia eta fisiologia sexuala, preserbatiboen erabilera eta gizakion sexu-erantzuna. Homosexualitatea ikastetxeen % 58k jorratzen dute, guztiek DBHn. Haurdunaldiarekin eta erditzearekin lotutako alderdiak ez dira oso arruntak etapa horretan, ziur aski lehen hezkuntzari dagozkion gaiak direlako.

«Besteak» atalean (% 21 besterik osatzen ez duena) sexu-hezkuntzarekin estuki lotutako gaiak daude: gizonezkoen eta emakumezkoen arteko harremanak, sexu-harremanen alderdi etikoak eta afektuaren eta sexualitatearen arteko erlazioa (erakarpena, maitasuna eta maitemina).

Hala ere, galdetegiari erantzuten dion iritzia denez gero, datuok ez dute informazio askorik ematen. Ebaluazio zehatzago batek beste baliabide batzuk eskatuko lituzke, txosten hau egiteko baliatu ezin izan ditugunak.

Datuotan oinarrituta, zaila da ondorioztatzea gaiok zenbateraino dauden benetan normalizatuta curriculum-garapenean edota kanpoko profesionalek zenbateraino lantzen dituzten, aurrez ikusi dugun moduan, azken aukera hori izanik DBHn erabiliena. Sexu-hezkuntza lantzen emandako orduak oso bestelakoak direnez, ezinezkoa da jakitea zenbateraino sakontzen den horietan, eta zeintzuk diren erdiesten diren emaitzak. Galdera horiei erantzuteko modu bat izan daiteke DBHko bigarren eta laugarren mailak bukatutakoan gaitasunen araberako ebaluazioa egitea.






**Irudia 19:** Lantzen diren gaiak.

### 3.3.7.- Nola finantzatzen da jarduera hori?

Ikastetxez kanpoko profesionalek garatzen dituzten sexu-hezkuntzako jardueren kasuan, ikastetxeen % 44k beren diruarekin finantzatzen dituzte. % 24 diru-laguntzen bidez finantzatzen dira. «Besteak» atalean irudikatzen dira udalek, elkarteek, guraso-elkarteek edo beste zerbitzu publikoko profesionalek (adibidez, Osasun eta Kontsumo Sailak Hiesari aurea hartu eta kontrolatzeko planaren bidez) emandako doako zerbitzuak (17. irudia).




**Irudia 20:** Sexu-hezkuntza finantzatzeko modua.

### 3.3.8.- Zeintzuk dira sexu-hezkuntzan dauden zailtasun handienak?

Galdetegiari erantzun diotenen iritziz —gehienak zuzendariak, ikasketaburuak eta orientatzaileak—, eta 18. irudiak adierazten duen bezalaxe, sexu-hezkuntzak aurre egin behar dion zailtasun nagusietako bat irakasleen prestakuntza da. Era berean, zailtasuntzat jotzen dira baliabide falta eta irakasleek iriztea sexu-hezkuntza ez dela euren ardura, espezializazioa behar duten barne-barneko gaiak direla uste baitute.

Bestalde, gurasoen erresistentzia, gurasoei beldurra izatea edota irakasleen jarrera ideologikoa apenas hartzen dira zailtasun gisa.


«Besteak» atalean hainbat ekarpen aurkitzen ditugu: ikasleen motibazio eskasa, irakasleen autoritaterik eza gaion inguruan, ikastetxeek irizpide propiorik ez izatea, gaia lantzeko zenbait irakaslek agertzen duten erresistentzia, tutoretzako ordutegietan libre ez egotea, eta irakasleekin baino kanpoko pertsonekin komunikazioa hobeagoa izatea.



**Irudia 21:** Zailtasun nagusiak.

### 3.3.9.- Irakasleen prestakuntza

Azken hiru urteotan, irakasleek sexu-hezkuntzaren inguruko prestakuntza jardueretan parte hartu zuten galdetu genienean, ikastetxeetako ordezkariak emandako erantzunak oso ehuneko baxua erakutsi dute. Ikastetxeetako % 18k soilik hartu dute parte sexu-hezkuntzako jardueretan; gainerako % 82k ez (19. taula).



**Irudia 22:** Irakasleen partaidetza sexu-hezkuntzaren inguruko prestakuntza-jardueretan.

### 3.3.10.- Uhin Bare programari buruz

Esan daiteke Uhin Bare izan zela hezkuntza afektibo sexuala irakasteko Eusko Jaurlaritzaren DBHrako programa ofiziala. 2000. urtean plazaratu zen. Hezkuntza-osasuna batzorde mistoak eskatuta egin zen. Aurrez egindako esperientzia pilotu batean lau urtez egindako lanaren emaitza izan zen. Ahalegin handia egin zen irakasleen prestakuntza sustatze aldera. Programak LOGSEn proposatutako hezkuntzaren erreforman oinarritutako aukera eman nahi izan zuen. Zeharkakotasunaren ikuspegitik proposamen bat eskaintzen saiatu zen.

Hamaika urteren ondoren, zein da egoera?

Galdetegiari erantzun dioten ikastetxeetatik % 60k adierazi dute ez dutela Uhin Bare programa ezagutzen, % 40k bai. Horrek ez du esan nahi irakasle gehienek ezagutzen ez zutenik.

Ikastetxeen % 9k bakarrik erabiltzen dute programa; gainerako % 91k ez. Erabiltzen dutenen artean, ikastetxeko curriculumean txertatzeko erabakia klaustroak hartu du soilik ikastetxeetatik % 16an. Horietan, kasuen % 26an ikastetxeko zuzendaritza tartean egon zen. OOGk kasuen % 31n parte hartu du programa txertatzeko erabakian. Ikastetxeetatik % 68n orientatzaileak eraman du programazioaren koordinazioa.

Hasieran hain etorkizun eta babes handia zuen programa zergatik desagertu da ia erabat? Hauek dira arrazoi posibleak:

- 1.- Programaren metodologiak hezkuntza-sistema probatu zuen, sailen arteko eta sail barruko koordinazioa eskatzen baitzuen. Irakasleak kexu ziren, ez baitzegoen lan horiek egiteko denborarik. Izan ere, zeharkakotasunean oinarritutako ekimen gehienek porrot egin dute.
- 2.- Ikuspegi horretako arazo nagusietako bat irakasleen mugikortasunarekin lotuta dago. Zenbait ikastetxetan, ikasturte bakoitzean % 50 ere alda zitekeen irakasleen klaustroa. Egoera horretan, ia ezinezkoa da programa-mota horiek egonkortzea. Klaustroak egonkorragoak ziren ikastetxeetan, programa mantendu egin zen; adibidez, sare publikotik kanpoko itunpeko ikastoletan, itunpeko ikastetxe pribatuetan eta ikastetxe publiko txiki eta landa-eremuakotan.
- 3.- Sexu-hezkuntza ikastetxeen eta irakasleen aukeramena delako iritzia. Lege-idazki gehienetan, sexu-hezkuntza derrigorrezkoa da, eta ikasleriak prestakuntza hori jasotzeko eskubidea du. Baina praktikan boluntarioa denez, joera alde batera uztea da.
- 4.- Babes eta sustapen politikorik eza. Programa-mota horrek irizpideak eta lehentasunak zehaztuko dituen hezkuntza-politika argia eskatzen du. Hori dela-eta, sexu-hezkuntza ikusarazi behar da, kasu horretan helburuen, lehentasunen, gaitasunen eta programazioen tartean, eta ikuskaritza-zerbitzuek horiek betetzen direla egiaztatu beharko lukete. Hori gertatzen ez denean, saihestezina da programa-mota horiek pixkanaka desagertzea, erakutsitako datuek adierazten duten moduan.


5.- Programa kontzeptuaren inguruko gogoeta. Programa gisa gai baten inguruko ekintza multzo itxia eta programazio ofizialetik kanpo dagoen osagarritzat hartzen bada, eskolako programa amaigabeen lehiaketa zentzugabea eta logikarik gabekoa sortzen da. Gure kulturaren, sexualitatearen irakaskuntzari berezkoak zaizkion jarrerazko prestasunen eraginez, oso ohikoa da sexu-hezkuntza curriculumetik kanpo gelditzea beti eta kanpo profesionalen esku uztea; azken horiek bestelako lankidetzaren funtzioa bete beharko luketen ikastetxearekin. Gainera, aipatutako datuetan ikusi den bezala, sexu-hezkuntzako jarduerak ikastetxe bakoitzeko finantzaketa-baliabide oro har urriren mende egongo lirateke.

### 3.3.11.- Hiesaren prebentzioa eskolan

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak hiesari aurrea hartzeko eta kontrolatzeko garatutako planak, sortu zenetik, hiesa eta sexu-transmisiozko infekzioei aurrea hartzeko programak eta materialak sortzen ditu, bai eta gai horien inguruan irakasleak prestatzeko ikastaroak egin ere.


Jarduera horiek hezkuntza-osasun batzorde mistoak sustatzen ditu. Duela gutxi euren materialak berriitu dituzte.

Ikerketa honetan, material horiek DBHn izan duten erabileraren inguruko informazioa bildu dugu. Ikerketan parte hartu zutenen % 68k baieztatu zuten ikastetxeak hiesari aurrea hartzeko jardueren batean parte hartu zutela; % 32k ezetz erantzun zuten (20. irudia). Oro har, parte-hartzaileek honako hauek jo zituzten jarduera gisa: Hiesaren Munduko Egunean antolatutako jarduera espezifikoak, osasun arloko profesionalen egindako hitzaldiak eta udalek, elkartek eta beste erakundeek sustatutako hainbat ekintza.




**Irudia 23:** Hiesari aurrea hartzeko jardueretan izandako parte-hartzea.

Ikastetxeen % 56k prebentzio-jarduerak antolatzen dituzte egun; hots, galdetegia egin den ikasturtean. Gainerako % 44k, ordea, ez (21. irudia). Jarduerak aipatutako motakoak dira.




**Irudia 24:** Hiesari aurrea hartzeko jarduerak, gaur egun.

Erantzun zutenen % 70ek programa eta hiesari aurrea hartzeko materialak ezagutzen zituztela adierazi zuten, eta % 30ek ezezagunak zitzaizkela esan zuten (22. irudia). Ezagutzeak, ordea, ez du esan nahi erabiltzen dituztenik, datuek erakusten duten bezalaxe, parte hartu zuten ikastetxeen % 53k adierazi baitute ez dituztela erabiltzen.




**Irudia 25:** Ezagutzen duzu sexu-transmisiozko gaixotasunei eta nahi gabeko haurduntzei buruzko Eusko Jaurlaritzaren programa?

Bakarrik ikastetxeen % 20k erantzun dute ikasketa-maila guztietan sistematikoki erabiltzen duela. % 21ek noizbehinka baliatzen dutela baieztatu du. Gainerako % 7k, berriz, beste erakundeetako programak baliagarri zaizkiela adierazi dute (23. irudia).



**Irudia 26:** Erabiltzen al duzue ikastetxean sexu-transmisiozko gaixotasunen eta nahi gabeko haurduntzaren prebentzio-programa?

Egun, hiesari aurrea hartzeko prestakuntzan ikastetxeen partaidetza baxua da. Ikastetxeen % 23k besterik ez dute irakasleen prestakuntzako programetan parte hartu, hiesari eta nahi gabeko haurduntzei aurrea hartzeko programari dagokionez (24. irudia).



**Irudia 27:** zure ikastetxeak parte hartu al du sexu-transmisiozko gaixotasunei eta nahi gabeko haurduntzei aurrea hartzeko programaren inguruko prestakuntzan?



#### 4.- Ondorioak eta gomendioak

DBHko ikasleen heren bat inguruk sexu-jarduera handia du, koitoaren sexu-esperientzia eta koitoaren inguruko sexu-praktiken (*petting*) maila kontuan hartzen badugu; **koito-jarduera % 20** baino zertxobait gutxiago izan da. Maila hori hartzen badugu kontuan (koitoaren inguruko sexu-praktikak, % 19), **DBHko nerabeen (15-16 urte) % 30** inguruk du kontuan hartzeko maiztasuneko sexu-esperientzia. Batxilergoan, proportzio hori % 47 ingurura igotzen da (**koito-jarduera % 35**) eta **prestakuntza-zikloetan, ia % 70era**.

Bestalde, bistakoa da emakumeen sexu-esperientzia gizonena baino zabalagoa dela maila guztietan. Beste ikerketa batzuetatik ateratako datuek adierazten dute 1990eko hamarkadan sexu-esperientzia (maila nahiz maiztasunari dagokienez) handiagoa zutela gizonen emakumeek baino. Gaur egun, balio horiek alderantzikatu egin dira eta emakumeak gizonen aurretik daude, eskolatzeko-maila guztietan.

Emakumeek bikotekide egonkorrekin izan ohi dituzte sexu-harremanak, nahiz eta nerabezaroan egonkortasunaren kontzeptua erlatibizatu egiten den. Hala eta guztiz ere, gizonen harreman gehiago izaten dituzte noizbehinkako bikotekideekin.

Urteekin aldatzen ez den kontuetariko bat sexu-esperientziak izateko arrazoia da. Emakumeek baieztatzen dute maiteminduta egotea dela; gizonen, esperimendatzea. Datu horrek berresten du zenbait ikerketa fidagarri adierazitakoa, sexu-jarduerak norberaren onarpena edo atxikimendua (lotura afektiboa) lagun dezakeela.

**Gizonen % 88.4k preserbatiboa erabiltzen du, eta emakumeen % 77.9k.** Preserbatiborik erabiltzen ez duten emakumeen (% 21.1) % **52k anobulatorioak erabiltzen ditu**, gehienek bikotekide egonkorrekin.

Preserbatiboak erabiltzen dituztenen artean, **gizonen % 73k eta emakumeen % 68.8k** beti erabiltzen duela dio. Datu horiek adierazten dute sexualki aktiboak diren nerabe gehienek, hiru laurden inguruk, sexu-esperientzia arduratsuak izaten dituztela. Hala eta guztiz ere, laurden bat arriskuan egon liteke, prebentzio-neurriak desegoki edo gaizki erabiltzen dituelako. Ia ez da beste antisorgailurik erabiltzen; salbuespen bakarra emakumeen anobulatorioak dira (**% 18.2**).

Emakumeen % **37.1ek** erabili du **emergentziatzko kontrazepzioa**. Horien artean, % **56.2k behin erabili du, eta % 25.7k birritan edo gehiagotan**. Datu horietatik ondoriozta daiteke erabiltzaileen erdiak baino gehiagok ondo erabili duela hurrengo eguneko pilula, alegia, emergentziatzko kontrazepzio gisa eta behin bakarrik. Hala eta guztiz ere, erabiltzaileen beste erdiak birritan edo gehiagotan erabili du, eta horrek adierazten du agian oker erabiltzen dutela.

Emaitza horietatik ezin da ondorioztatu euskal gazte eta nerabeen arteko sexu-portaera ohizkanpoko denik. Aldiz, datuek sexu-portaeraren inguruko ezagutza objektibatzen dute eta sexu-jarduera nerabeen benetako garapen ebolutibora egokitze aukera ematen dute.

Euskal gazte eta nerabe gehienek sexu-jarduera eta sentimenduak era osasungarrian bateratzen dituzte. Hala eta guztiz ere, datu horietan ikusten dira **zenbait arrisku-poltsa**, eta, ziurrenik, horietan sartuko dira nahi gabeko haurdunaldiak, amatasun goiztiarrak eta sexu-transmisiozko gaixotasunak.

Osasunaren ikuspegitik, azpimarratu behar da gazte eta nerabe gehienak era normal eta arduratsuan hasten direla sexu-harremanetan. **Preserbatiboak gehiago eta hobe erabiltzen dira**, 2005eko datuen aldean. Hala eta guztiz ere, emergentziazko kontrazepzioa nahiko erabiltzen da, **sexualki aktiboak diren emakumeen % 37** inguruk erabiltzen baitu.

Egiaztatu da preserbatiboa bi funtziotarako erabiltzen dela: a) STGeetatik babestea, b) haurdunalditik babestea. Ziurrenik, preserbatiboa erabiltzeko presioak jaiotze-kontrola serio planteatzeko beharra ezkututzen du, eta horrek adieraziko luke zergatik erabiltzen diren hain gutxi beste antisorgailu batzuk.

Nahi gabeko haurdunaldien eta abortuen tasak egonkor mantentzen dira eta, beste autonomia-erkidego batzuen aldean, baxuak dira, datu hauek EUSTATEk eta INJUVEk emandakoekin alderatzen baditugu. Baina horrek ez du esan nahi arrisku-egoerak gutxitu direnik, **emergentziazko kontrazepzioa baliabide gisa erabiltzeko joera dagoela baizik**. Datu horiek are esanguratsuagoak dira preserbatiboen eta emergentziazko kontrazepzioaren erabilera alderatuta.

Alkoholaren eta beste substantzia batzuen erabilerari dagokionez, ez da kausa-efektu erlaziorik antzeman horiek hartzearen eta sexu-portaerari egotzitako arriskuen ondorioen artean. Arrisku horiek jasaten dituzten pertsonen eta sexu-jarduera laguntzeko alkohola eta bestelako substantziak hartzen dituztenen eta ez dituztenen arteko diferentziak ez dira nabarmenak izan. Hala eta guztiz ere, deigarria da substantzia horiek erabiltzen dituztenak emakumeak izatea, gizonak baino gehiago. Datu horiek erlatibizatu egin behar dira, ziurrenik "desiragarritasun soziala"ren printzipioak eragina izango baitu gain hain sentikorren gaineko erantzunetan.

Datu horiek agerian uzten dute sexu-hezkuntzari buruzko planteamenduak eguneratu egin behar direla, nerabeen benetako beharretara egokitu behar direla. Sexualitatearen eta afektibotasunaren inguruko gaitasunak hartzen lagundu behar zaie. Xedea da nerabeek, DBH bukatutakoan, behar afektiboak eta sexualak kudeatzeko behar adina baliabide izatea.

Sexu-hezkuntzari dagokionez, hezkuntza-sistemak sexu-hezkuntzan duen ardura **kanpo-eragileen esku uzten du (ikastetxeen % 73)**.

Ikastetxeen zailtasun nagusiak dira **irakasleek ez dutela prestakuntzarik (% 55) eta baliabideak eskasak direla (% 43)**.

## 5.- Erreferentziak

- Bartholomew, K. (1997). Adult attachment processes: Individual and couple perspectives. *British Journal of Medical Psychology*, 70(3), 249-263.
- Carpintero, E. (1995). El problema del embarazo no deseado en la adolescencia. En F. López (Ed.), *Educación sexual de adolescentes y jóvenes*. Madrid: Siglo XXI.
- Comas, D. (2008). La evolución del comportamiento sexual juvenil y el control de los riesgos asociados a la sexualidad. In *Informe 2008. Juventud en España. La salud de la juventud* (Vol. 3). Madrid: Instituto de la Juventud. Ministerio de Igualdad.
- Espada, J. P., Quiles, M. J. y Méndez, F. J. (2003). Conductas sexuales de riesgo y prevención del sida en la adolescencia. *Papeles del Psicólogo*(85), 29-36.
- Fernández del Valle, J., Bravo Arteaga, A., García Ruíz, M. y Uría Urraza, M. (2003). *Estudio sobre el comportamiento y las actitudes sexuales en la juventud asturiana*. Oviedo: Departamento de Psicología. Universidad de Oviedo.
- Frijda, N. (1994). Emotions are functional, most of the time. En P. Ekman y R. J. Davidson (Eds.), *The nature of emotion*. Oxford: Oxford University Press.
- Frijda, N. H., y Mesquita, B. (1994). The social roles and functions of emotions. In S. Kitayama & H. R. Markus (Eds.), *Emotion and culture: Empirical studies of mutual influence*. Washington: American Psychological Association.
- Fuertes, A., Soriano, S. y Martínez, J. L. (1995). La sexualidad en la adolescencia. En F. López (Ed.), *Educación sexual de adolescentes y jóvenes*. Madrid: Siglo XXI.
- García Blanco, J. (1994). *Sexualidad y adolescencia*. Valencia: Promolibro.
- Gómez-Zapiain, J. (1997). El deseo sexual como emoción. En J. Gómez Zapiain (Ed.), *Avances en sexología* (pp. 21). Bilbao: Universidad del País Vasco.
- Gómez-Zapiain, J. (1993). *Riesgo de embarazo no deseado en la adolescencia y juventud*. Vitoria-Gazteiz: Emakunde / Instituto Vasco de la Mujer.
- Gómez-Zapiain, J. (2005). Aproximación a los comportamientos sexuales y de riesgo en la adolescencia. In A. S. Rathus, J. S. Nevid & L. Fichner-Rathus (Eds.), *Sexualidad Humana* (pp. 289-292). Madrid: Pearson-Prentice Hall.
- Gómez-Zapiain, J. (2009). *Apego y sexualidad. Entre el vínculo afectivo y el deseo sexual*. Madrid: Alianza Editorial.
- INJUVE. (2000). *Informe de la Juventud en España*. Madrid: Instituto de la Juventud de España.
- Lagrange, H. y Lhomond, B. (1997). *L'entrée dans la sexualité. Le comportement des jeunes dans le contexte du sida*. Paris: Éditions La Découverte.
- Levine, S. B. (1988). Intrapsychic and individual aspects of sexual desire. En S. L. Leiblum y R. C. Rosen (Eds.), *Sexual desire disorder*. New York: Guilford Press.
- López, F. (1999). Evolución del apego desde la adolescencia hasta la muerte. En F. López, I. Etxebarria, M. J. Fuentes y M. J. Ortiz (Eds.), *Desarrollo afectivo y social*. Madrid: Pirámide.
- Malo de Molina, C. (1992). *Los españoles y la sexualidad*. Madrid: Temas de hoy.
- Martínez, J. L. (2000). Experiencias heterosexuales en la adolescencia: Implicaciones para la educación sexual. *Revista de Psicología General y Aplicada*, 53(1), 191-209.
- Money, J. y Ehrhardt, A. E. (1982). *Desarrollo de la sexualidad humana. Diferenciación y dimorfismo en la identidad de género*. Madrid: Morata.
- Oliva, A., Serra, L. eta Vallejo, R. (1993). *Conducta sexual y contraceptiva entre jóvenes andaluces. Estudio cuantitativo*. Sevilla: Junta de Andalucía.
- Oliva, A., Serra, L. eta Vallejo, R. (1997). Patrones de comportamiento sexual y contraceptivo en la adolescencia. / Patterns of sexual and contraceptive behaviour in adolescence. *Infancia y Aprendizaje*(77), 19-34.

- Ortíz, M. J., Gómez-Zapiain, J., & Apodaka, P. (2002). Apego y satisfacción afectivo sexual en la pareja. *Psicothema*, 14(2), 469-475.
- Ortíz, M. J., Gómez-Zapiain, J. y Apodaka, P. (2002). Apego y satisfacción afectivo sexual en la pareja. *Psicothema*, 14(2), 469-475.
- Schofield, N. (1965). *The sexual behaviour of young people*. London: Longman.
- Weinberg, M. S., Lottes, I. L. y Aveline, D. (1998). AIDS risk reduction strategies among United States and Swedish heterosexual university students. *Archives of sexual behavior*, 27(4), 385-401.

## 6.- Ilustrazioen zerrenda

Irudia 1.- Sexu-esperientziaren maila historikoa, mailaren eta sexuaren arabera.	8
Irudia 2.- Sexu-esperientziaren mailak, adinaren arabera.	9
Irudia 3.- Sexu-jardueran hasteko batez bestekoen mailen arabera konparazioa, 2005 - 2011 urteren artean.	9
Irudia 4.- sexu-esperientzia DBHn, sexuen arabera eta ehunekotan	13
Irudia 5.- sexu-esperientzia batxilergoan, sexuen arabera eta ehunekotan.	13
Irudia 6.- sexu-esperientzia heziketa-zikloetan, sexuen arabera eta ehunekotan	14
Irudia 7.- Sexu-portaeraren bilakaera, 2005. urtetik 2011. urtera bitartean.	15
Irudia 8.- Metodo antikontzeptiboen erabilera bikote egonkorra izanik preserbatiborik erabiltzen ez duten emakumezkoen artean.	21
Irudia 9.- sexu-jarduerarako baldintzak, sexuaren arabera.	30
Irudia 10.- atxikimendu-dimentsioak eta kategoriak	37
Irudia 11.- Sexualki aktiboak ez diren pertsonen atxikimendu-estiloak eta arriskuarekiko prestasuna, sexuen arabera.	41
Irudia 12.- Sexualki aktiboak ez diren pertsonen atxikimendu-estiloak eta arriskuarekiko prestasuna, sexuen arabera.	42
Irudia 13.- Ikastetxe-mota.	47
Irudia 14.- Konfesionaltasuna.	48
Irudia 15.- Lurralde historikoa.	49
Irudia 16.- Galdetegiari erantzun zioten profesionalak.	50
Irudia 17.- Sexu-hezkuntzaren irakaskuntza, mailen arabera.	51
Irudia 18.- zailtasun nagusiak.	53
Irudia 19.- Lantzen diren gaiak.	54
Irudia 20.- Sexu-hezkuntza finantzatzekomodua.	55
Irudia 21.- Zailtasun nagusiak .	56
Irudia 22.- Irakasleen partaidetza sexu-hezkuntzaren inguruko prestakuntza-jardueretan	58
Irudia 23.- Hiesari aurrea hartzeko jardueretan izandako parte-hartzea.	58
Irudia 23.- Hiesari aurrea hartzeko jarduerak, gaur egun.	59
Irudia 25.- Ezagutzen duzu sexu-transmisiozko gaixotasunei eta nahi gabeko haurduntzei buruzko Eusko Jaurlaritzaren programa?	58
Irudia 26.- zure ikastetxeak parte hartu al du sexu-transmisiozko gaixotasunei eta nahi gabeko haurduntzei aurrea hartzeko programaren inguruko prestakuntzan?	59
Irudia 27.- ikastetxeak parte hartu al du sexu-transmisiozko gaixotasunei eta nahi gabeko haurduntzei aurrea hartzeko programaren inguruko prestakuntzan?.	60